Universidad de Deusto
Biblioteca

# FABULAS

Y OTRAS

## COMPOSICIONES EN VERSO VASCONGADO

DIALECTO

## GUIPUZCOANO

CON UN DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO

DE LAS VOCES

QUE SON DIFERENTES EN LOS DIVERSOS DIALECTOS.

I. R. B.

EL MENSAJERO DEL CORAZÓN DE JESÚS ✱ BILBAO
ADVENIAT REGNUM TUUM

SAN SEBASTIAN
En la imprenta de IGNACIO RAMON BAROJA.
AÑO 1842.

25651

Universidad de Deusto
Biblioteca

## EUSCAL ERRICO GASTERIARI.

Nere euscal errico
Gazteri ederra ,
Ez det uste derala
Eguin lan alferra
Ipuiac ifintcean
Gure zorcicoan ,
Cantatceco , nai bada ,
Arturic gogoan.
Badirade latiñez ,
Badira erderaz ,
Ez alditugu bear
Guc ere euscaraz ?
Bai , on da jaquitea
Lengo demboretan
Chit omen cequitela
Ederqui itzquetan
Chacur , eta catuac ,
Auntzac , aceriac ,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Itz batean, orduco
Abere guztiac,
A la dio Esopoc,
Guizon eguitia,
Ote zan ez daquit nic,
Edo guezurtia;
Baña ez da dudaric
Zala chit chiquia,
Bizcar macurra, eta
Jaquintsun andia,
Eta lendabicico
Onen mesedeac
Mintzarazo cituen
Ederqui abereac.
Aditurica oien
Jardun erausiac,
Eguingo dituzute
Ascotan irriac;
Esango ere dezute
Eguiñica farra,
*Ez uen orregatic*



*Gende ura narra.*
Ipuien acaballan
Dauden sentenciac
Aguiri da dirala
Eguia andiac,
Eta sartcen badira
Zuen biotcetan
Damutuco ez zazute
Ceren egunetan
Orra Esopo jaunac
Nai duen saria
Eta orra nic ere
Nai de dan gucia.

Universidad de Deusto
Biblioteca

### *Aceria eta Olloa.*

Aceri zar andibat
Gosaldu gabea
Cebillen sasiz sasi
Errabiz betea ;
Illuntcera cijoan ,
Eta mocaduric
Jan gabe arquitcen zan
Gaisoa oraindic.
Ollo batec cacaraz
Eguiñic onetan ,
An dijoa lasterca
Lau oñen puntetan ,
Ozta olloteguira
Alderatutcen zan ,
Ollo guztiac igues
An dijoaz egan ;
Bacarric gueldítu zan
Otarre batean
Colca arquitcen zan bat
Arraultzen gañean.
Aldamenetic zaio
Aceria asten
Colcari belarrira
Onela esaten.

Cer da ori, maitea!
Quioa al dezu?
Edo arraultz eguiten
Zaude orrela zu?
Atera bear nazu
Quezca onetatic.
Nola arquitcen ceran
Jaquin nai nuque nic.
Jauna, dio olloac,
Arquitcen naiz gaizqui;
Ayenatcen bacera
Jarrico naiz ongui.
Cembati, nola gauden
Galde eguitean,
Ez diegu esaten
Gueren barrenean,
Aceriari esan
Ciona olloac,
Miñez ceucan orduan
Sasquian quioac?

*Chacur biac.*

Sultan zan zacur ausart
Guztizco jalea,
Batezere ariqui
Guicenen zalea.



Ister lodi andi bat
Bein, uste cabean,
Nagusiari cion
Ostu bere echean.
Pinto aren laguna,
Ez jale chiquia,
Zocoz zoco cebillen
Galduric guztia
Sultanen billa eta,
Sucalbazterrean
Noiz bait topatu zuen,
Etciñic lurrean,
Ari isterra jaten
Aleguin guztian,
Arturica aurreco
Bi oñen erdian.
Beldurrez ez ciola
Utzico paquean,
Marmar asi zan Sultan
Pinto icustean,
Beguiac armaturic,
Jasoric sudurra,
Letaguiñaz puscatcen
Zuela ezurra.
Pinto asitcen zaio
Bertatic galdetcen,
Cer deaurru queria

Ari aiz eguiten?
Ceñec burutara dic
Eche mot onetan
Astea orren fresco,
Pinto, lapurretan?
Ez aiz oroitzen cembat
Nausiac nai digun?
Gurequin dabillela
Jostatcen gautegun?
Ez duela beñere
Jaten mocaduric,
Aurrena gu bioi
Eman gabetanic?
Nausiari diozcac
Ematen esquerrac,
Despensatic ostuaz
Arien isterrac?
Onelaco paguric
Ez dic arc mereci,
Bertactica bear dec
Ister ori utzi;
Zacurrac izan beaic
Leiala, prestua,
Edo ez dec zacurra
Baicica catua.
Bertatic seguitceco
Ire consejua,



Ceña icusten diat
Dala chit justua,
Pinto, dio Sultanec,
Galdecho bat iri
Eguin beaiat orain;
Esan za dac niri;
Baldin ari ister au
Utzitcen badet nic,
Pinto nere maitea,
Ez aldec jango ic?
Besteri consejua
Nai dionac eman,
Lenaz icusi beaic
Bera premian dan

*Errementaria eta Zacurra.*

Errementari batec,
Campora joatean,
Eche zai uzten zuen
Zacurra atean.
Egun batez lapurrac
Dirua cuchatic
Ostu zuten, sarturic
Atceco aldetic.
Oartu zan orduan
Errementaria

Universidad de Deusto
Biblioteca



Falta zala echean
Zan diru guztia.
Burua galdu, eta
Arturic maquilla,
Eche guztitic dabill
Zacurraren billa.
Atorquit onontz Turco,
Oju eguiten dio,
Zacurra ichill ichill
Badijoaquio
Guztia beldurturic
Belarriac bean,
Burua macur, eta
Buztana ancapean.
Turco, esaten dio,
Certaraco aut nic?
Ezdioc echeari
Eguiten conturic;
Malluen otsac ezau
Beñere esnatcen;
Plater soñuac berriz
Laster au ernaitcen;
Lanari utzi, eta
Ni jaten astean,
Falta gabe an aucat
Zut aldamenean.
Ez dec iñoiz icusi



Nere suteguia,
Maiean icusten dec
Ire nagusia;
Uste dec nosqui, Turco,
Aizela condea,
Orrela bicitceco,
Ase ta betea,
Beti etciñ eta lo,
Alcha gabetanic,
Sucaldera joan, eta
Asetceco baicic?
Itz oien ondotica
Turcoc icustean
Nausiaren maquilla
Zuela gañean,
Igues eguin ondoren
Aurreco atetic,
Ojuca asten zaio
Burua jasoric;
Cer du gueiago, jauna,
Nic baño condeac?
Nic becin ongui daqui
Bere mesedeac,
Sortcetic dacarrela
Norc bere patua,
Naiz dala zacurra ta
Naiz dala catua;

Ez cituen zacurrac
Eguin Jaungoicoac
Lanean aritceco,
Baicican astoac.
Nausiac icusiric
Burua aín gora,
Beldurrez ez cequion
Saltatu lepora,
Eranzun bide cion
Modu onarequín,
Ez det naí, conde jauna,
Nic jardun zurequin.
Oiec gustiac dira
Zure erausiac,
Acabatu ditzagun
Gaur gure auciac.
Zuc badaquizu dala
Eche au nerea,
Eta nai det emendic
Campora joatea.
On da icus dezazun,
Turcocho, gaur bertan,
Nola bici diraden
Beste echeetan.
Icusiric zacurrac
Ala despediteen,
Asten da emen sartu

Universidad de Deusto Biblioteca



Eta andic irten.
Ez du Turcoc gustoco
Echeric topatcen.
An erabilli beau
Tornu burruntcia,
Erretceco arentzat
Ez dan ariquia;
Emen ichu aurreco
Da aren jarduna,
Beti barau, ez dezan
Galdu osasuna;
Azquenic beste eche
Aberats batean
Gautegun an daucate
Loturic catean.
Onela icusten du,
Dirala laratzac
Errian diran eche
Guztietan beltzac,
Eta lan eguiteco
Gure Jaungoicoac
Guztioc gaituela
Eguiten astoac.

*Catu biac.*

Eche andi batean
Cituzten catu bi,
Bata Zapiron, eta
Bestea Misipi.
Biac ceuden guicenez
Lertceco zorian;
Norc beste alaco bi
Arquitu errian!
Maitatuac ciraden
Echean biciro,
Ayen bicia oi zan
Jan, josta, eta lo.
Beti usten cituzten
Bi catu prestuac
Paquean arratoiac,
Paquean saguac.
Samurreguia zuten
Gaisoac biotza
Aiei emateco
Zarpaz eriotza.
Goiz batean ceudela
Eltceen ondoan,
Lurrean etciñica,
Lo gozo gozoan,



Abarrotz batec ditu
Batetan esnatcen,
Eta aurrera dute
Biac beguiratcen;
Icusten dute suan
Tornu burruntcia,
Eta artan giraca
Capoi bat andia.
Erasotcen diote
Biac capoiari,
Eta dirade jaten
Atzaparca ari,
Beguiac armaturic,
Eta marmarraraz,
Buztana arontz onontz
Maiz erabilliaz.
Icustecoac ciran
Bat eta bestea
Tantaca cocotcetic
Jarioz coipea.
Jan cituzten orduan
Mamiac, ezurrac,
Baita ere garbitu
Mingañaz sudurrac,
Misipic omen cion
Esan Zapironi,
Gauza bat orain zaidac

Universidad de Deusto Biblioteca



Gogoratu niri;
Jan degun ezqueroztic
Capoitzar guztia,
Jan dezagun lasterca
Orain burruncia.
Ago ichillic, mutil,
Dio Zapironec,
Conciencia ori
Eguiteco non dec?
Eranzun omencion
Irriaz Misipic;
Astoa, errepañac
Cer dion ez daquic?
Concienciaraño
Etorri ezquero,
Mandoa nerea dec
Guerocoa guero.
Zapironec, enzunic
Cer cion Misipic,
Janzac nai badec, dio,
Ez diat jango nic.
Cembat ez ote dira
Cristaben artean
Escrupuloz beteac,
Ecin dutenean,
Eta besteen gauzaz,
Escrupulo gabe,



Eguiten diradenac
Albadute jabe.

*Hitz ontzia.*

Parisen eta beste
Erri andietan
Icusi oi dirade
Asco carriquetan,
Egunaz eta gabaz,
Guizon itz ontziac
Gendez inguraturic
Daudela guztiac.
Batec an eguiten du
Artzaren orrua,
Besteac or gabazco
Ontzaren cantua;
Azquenic beste batec
Arpegui berean
Farra, eta negarra
Dembora berean,
Eracusten duela
Arpeguia, ciñez,
Aldebatetic farrez,
Bestetic negarrez.
Aien artean zan bat
Chiquiratzallea,

Guztien gain gañeco
Gurrinca guillea.
Chit gende asco ceucan
Carrica buruan,
Aoac zabalduric,
Bere inguruan.
Capa andi batean
Cegoan bilduric,
Bultzaca, ecin lecu
Iñolaz eguiñic.
Oju eguiten cioten,
Fuera fuera capa,
Beldurrez cezaquean
Cerbait ala tapa.
Capa quendu ondoren
Gurrinc eguiten du
Aiñ ongui non gendea
Algaraz lertcen du.
Asten da bereala
Gurrincari abilla,
Chapela luzaturic,
Bertan diru billa,
Eta mutico batec
Dioque esaten,
Jocatuco diola
Gurrinca eguiten.
Apostura eguiñic

Universidad de Deusto Biblioteca



Biac dira asten
Carricaren erdian
Gurrincac eguiten.
Aditu zutenean
Chiquiratzallea,
Oju eguiten dute,
Len baño obea;
Eta aditurica
Guero muticoa,
Fuera fuera esanaz,
Gendea an dijoa.
Galtzarbe sare bat du
Mutillac aguertcen,
Eta cherricume bat
Die eracusten,
Esaten dielaric,
Chimurchi batequin
Ez nic, mutico onec
Dic gurrinca eguin.
Zuec diozutenez
Zhiquiratzalleac
Eguindizquic gurrincac
Onec baño obeac.
Erriac bacinduzte
Zuec buru zagui,
Ez uque justicia
Ibillico gaizqui.

Universidad de Deusto Biblioteca



*Otsoa eta Arcomea.*

Arcume bat juan zan bein
Erreca batera,
Egarritu zalaco,
Ura edatera;
Irteten da otso bat
Aurreco menditic,
Jartcen zayo edaten
Garaico aldetic.
Bildocha cegoan chit
Mardul, biribilla;
Asco ibiltcen guera
Alacoen billa.
Asten zayo otsoa
Ojuca esaten,
Mutil, certan ari aiz
Ur guztia loitcen?
Jauna, dio bildochac,
Naita ere uric
Ecin ciquin nezaque
Nic beco aldetic;
Icuz beza berorrec,
Baldin badu gura,
Or goitic emen bera
Datorrela ura.



Ala dec, dio, baña
Orainche urte bi,
Ciquindu idan arras
Ura emen niri.
Nola izan diteque,
Arcumeac dio,
Baldin orain urtebi
Ez banintzan jaio?
Arrazoi dec, otsoac
Dio eranzuten,
Orainche asitcen nac
Contuan erorten;
Ire anaya uen,
Bai, ire anaya,
Oroitcen nac ni zala
Egun ura jaya.
Ez da, dio bildochac,
Orrelaco gaucic,
Ez det, jauna, nic izan
Seculan anairic.
Ire amac orrela
Bear cian izan,
Eranzunaz, otsoa
Lasterca asi zan
Bildocharen ondotic,
Ta nai zuen eguin
Milla pusca gaisoa

Lau letaguiñaquin.
Eltcera dijoala
Bertan da azaltcen
Eiztari bat, eta du
Bi balaz pasatcen.
Onela quendu cizcan
Gure Jaungoicoac
Otsoari bildocha
Jateco gogoac.

*Eche arratoya eta Soro arratoya.*

Soro arratoi batec
Eche arratoya
Icusi zuen lodi,
Guicen, eta joya.
Adisquidea dio,
Bertatic esaten,
Zure mardultasunac
Guztiz nau arritcen;
Nombait ongui onada
Daucazun biciya,
Eguia esateco,
Dizut embidiya.
Nere bici modua
Jaquin nai badezu,
Erantzuten dio arc,



Zurea esazu.
Ni, dio Sorocoac,
Zelaiz zelai nabill,
Ale bat edo beste
Ote dezadan bill.
Ascotan biurtcen naiz
Zulora lerturic,
Alecho bat bacarra
Bildu gabetanic.
Orduan jaten ditut
Belarren sustrayac,
Eta izaten ditut
Sabel errabiyac;
Nere bici modua
Orra adisquedea,
Orain jaquin beardet
Nic ere zurea.
Arrazoya daucazu,
Dio eranzuten,
Eta asitcen zayo
Onela esaten.
Zure bi saietzetan
Det ongui icusi
Ase eta betean
Ez cerala bici;
Arguia aguirida
Batectic bestera,

Universidad de Deusto Biblioteca



Negu onetan zoaz
Goseac iltcera.
Eroen contua da
Nequez bicitcea;
Zurrena neque gabe
Tripa betetcea.
Sinistatu nazazu,
Nic, adisquidea,
Oraindica ez daquit
Cer dan necatcea.
Bizquitartean nago
Beti ugüituric,
Jan baño jan naiago,
Eta ecin janic.
Atoz icusdezazun
Nola nic echea
Goitic bera daucadan
Janariz betea.
An daucatzit cincillic
Gazta Flandescoac,
Odolquiac, lucaincac,
Eta chorizoac.
Bacarric nago, eta
Nai nuque laguna,
Igarotceco pocez
Jostatcen eguna.
Ozta soro arratoyac



Zuen au aditu,
Berealache cion
Atcetic jarraitu.
Echera cirenean
Elcarren ondotic,
Sartu ciran despensan
Catuen chulotic.
Sorocoac ozta du
Goratcen burua,
Uste du icusitcen
Duela cerua.
Cer da au! dio ojuca,
Au bai dala mauca!
Onelaco fortuna
Munduan norc dauca?
Pocez eroturica,
Trast, salto batean,
Igo, eta jartcen da
Lucainquen gañean.
Jan, eta jan ari da,
Ecin ugüituric,
Ez du iñorc icusi
Alaco jaleric.
Onela ari dala
Sabela betetcen,
Caturen miauac
Dirade aditcen.

Universidad de Deusto Biblioteca



Aditu becin laster,
Eta salto bian,
Echeco arratoya
Sartcen da cabian.
Ura icusi eta,
Guero sorocoa
Lasterca ondotica
Argana dijoa.
Nai baño nequezago
Sartuzan chulotic,
Ceren sabela ceucan
Lucaincaz beteric.
Icusten du laguna
Icaraz betea
Neque andiarequin
Artcen asnasea.
Cerda, esaten dio,
Cerda beldur ori?
Cer guertatcen zaic mutill?
Esan zadac niri.
Asnas eciñ arturic,
Dio eranzuten,
Catuaren miauac
Ez dituc aditcen?
Badituc lau echean,
Lauac eiztariyac,
Oiec jancizquidatec



Nere bost anayac.
Beguira zac nola nic
Daucadan buztana,
Erdiya larrutua,
Beste erdiya jana.
Doi doya egun batez
Nian igues egiñ,
Contentu gueldltu nac
Onenbesterequin.
Gueroztic galtcen diat
Osoro burua,
Aditcen dedanean
Catuen miaua.
Au enzun zuenean,
Dio sorocorac,
Maiz badira icara
Gaurbezalacoac,
Oa mutill naibadec
Deaurru echera,
Naiago diat nic joan
Sustrayac jatera.
Gabaz irtenic joan zan,
Esanaz bidean,
Peligrotica libre
Arquitu zanean;
Obediat nic ascoz
Pobreza paquean,

Ez aberastasuna
Icaren artean

Universidad de Deusto Biblioteca

*Esnesaltzallea.*

Nescacha bat cijoan
Plazara neguan,
Escuan chanchilla ta
Caicua buruan.
Gorputz liraña zuen,
Guerriya chit mea,
Illea erporaño
Urre colorea;
Perla guisaco ortzac,
Aoa chiquiya,
Beguiac beltz andiac,
Ezpaña gorriya;
Ibillian iñori
Ecer zor ez cion,
Itz batean gendeac
Beguiratcen cion.
Lasterca bere buru
Cijoan itzquetan,
Itz eguiten zuela
Manera onetan.
Esne au nerea det,



Ala aitac esandit,
Saldu ta diru asco
Niri emango dit.
Bereala beaitut
Arraultzac erosi,
Sasqui bat bete arraultz
Izango det nosqui?
Uda berriya dator,
Maiz nere burua
Chitoz icusico det
Nic inguratua.
Eguiten diranean
Ollanda ollasco,
Artuco det aiequin
Dirurican asco,
Erosteco ferian
Aurrera cherriya,
Berechitcen derala
Al bait umaciya.
Ugari izan bait da
Chit aurten ezcurra,
Joaracico diot
Laster tripaz lurra.
Nola izango duen,
Urdaya lodiya,
Artuco det onequin
Nic diru andiya,

Universidad de Deusto Biblioteca



Eta erosico det
Chalcho bat urrisa,
Umeac eguin ditzan
Echecoen guisa.
Urte asco baño len,
Badet nic ustea,
Arquituco naizcela
Ganaduz betea.
Ozta izango alda
Errian nescachic
Dotea nic adiña
Izango duenic.
Asmo oiec eguiten
Ari dan artean,
Irristatcen zayozca
Bi oñac lurrean;
Adiyo aren esne,
Arraultz, ta chitoac,
Adiyo cherri, chalta
Dote guztizcoa.
Ascotan dirudite
Gure esperantzac
Osoro chacurraren
Gaberdico ametsac



*Astoa*, *eta Cherria*.

Asto bat bici oizan
Ucullu batean,
Eta cherri bat berriz
Aren bazterrean.
Cherriari astoac
Cion embidia,
Ceren ascoz obea
Zan aren bicia.
Ori, esaten zuen,
Dago ugüituric,
Ez dezaque ecer jan
Ez badu iriñic;
Ni berriz emen nago
Gosez idiquiric,
Majaderan ez daucat
Lastoaren pisquic.
Noicic bein baldin badet
Millizcatcen zaia,
Iduritcen zat dala
Orduan eztaia.
Goicetic arratsera
Oida aren lana,
Tripa ecin jasoa,
Ecer ecin jana.

Ni beti narabilte
Arras zamaturic,
Indarrac galdu eta
Ecin iguituric.
Atz eguiten diote
Ari bizcarrean,
Maitechoa esanaz,
Jana ematean;
Ni zamaren azpian
Ez naute urriqui,
Beaituzte egunean
Neretzat maquil bi;
Cembat eta daucadan
Indar guchiago,
Ambat eta gañean
Det golpe gueiago.
Au oi zan astoaren
Betico itzcuntza,
Jaincoari esanaz
Indazu laguntza.
Ostegun guicen egun
Deritzan goicean
Golpeca asten dira
Echeco atean;
Esnatcen da astoa,
Eta du icusten
Araquiña barrena

Universidad de Deusto Biblioteca



Deadarca sartcen,
Esanaz, guacen, guacen,
Non dago cherria?
Nescamea, arturic
Escuan pacia,
Asten da idiquitcen
Gaisoari eia.
Irteten da cherria
Doi doya eietic,
Arcen du araquiñac
Belarrietatic,
Eta ematen dio
Urte bi baño len
Eriotza gogorra,
Ceren dagoen guicen.
Norc esan astoaren
Beldur laborria,
Noiz allegatuco zan
Beraren aldia!
Burutic oñetara
Icerdiz bustiric,
An cegoan gaisoa
Chocoan ichillic
Irten zan bada noiz bait
Gure araquiña,
Eta acabatu zan
Astoaren miña.

Orduan esan zuen
Bere barrenean,
Jaincoari esquerrac
Bici naicenean!
Nic nere lagunari
Embidia nion,
Nere patua opa
Iñori ez nion;
Ez det nic nai aleric
Ez det nai iriñic,
Baldin ill bear bada
Orrela gazteric.
Betoz nere gañera
Amar milla maquill,
Ascoz naiago det nic
Onela zarric ill.
Berdin icusia da
Ez da atseguiñic
Mundu onetan iñon
Cerbait gabetanic.

*Berritsua.*

Tristan estudiante
Guztiz beartsua
Buru andicoa zan
Baña berritsua.



Aberastu nai zuen,
Gutici ona da,
Baldin bide onetic
Aberasten bada.
Baña guchi dirade
Galdetcen dutenac
Bideac diran charrac
Edo diran onac.
Asten da gure Tristan
Erriz erri deitcen
Diela abereai
Itzeguin arazten.
Orra non bereala
Daquien erreguec
Cer abillidadea
Daducan Tristanec,
Bere berealache
Deitzen du Madrilla
Onen guizon jaquintsun
Guztizco abilla.
Erregue asten zaio
Pozturic esaten,
Omen daquic astoai
Itceguin arazten?
Badiat bat echean
Eta dec emea,
Luzaro edan diat

Nic aren esnea.
Berari zor cioat
Nere osasuna,
Gueroztic uste diat
Derala laguna.
Orain ateraco dec
Contua emendic
Aren itza aditu
Naico ote dedan nic.
Tristanec dio, jauna,
Da ezagutua
Chit gogorra duela
Astoac burua.
Berorren mesedeac
Amar urteetan
Astoa enzungo du
Ederqui izquetan.
Guelara joan ondoren
Dator erreguea
Zaquela bat escuan
Ontz urrez betea,
Eta ematen dio
Tristani, esanaz,
Contentu izangonac
Tristan ire lanaz,
Baldin icusten badet
Amar urteetan

Universidad de Deusto Biblioteca



Nere asto maitea
Nerequin izquetan.
Ez da dio Tristanec
Predicadoreric
Asto ori izquetan
Gainduco duenic.
Gil aren adisquide
Eta erritarra
Au aditu ta ecin
Iduquiric farra,
Asten zaio esanaz,
Deaurruz betea,
Orrela engañatu
Beac Erreguea?
Igues eguintzac Tristan
Lasterca emendic,
Osticoca ez badec
Egon nai cincillic;
Cergatic azqueneco
Tristanen pagua
Izango dec iltcea
Emen urcatua.
Gilcho, dio Tristanec,
Guztiz dec lucea
Escatu eta eman
Diraten epea;
Amar urte oietan,

Contu epe oni,
Ez gaituc ilco erregue,
Astoa edo ni?

*Abereac izurriarequin.*

Baso, eta soroac,
Zelaiac, mendiac,
Abre illez ceuden
Arras estaliac,
Sartu citzaielaco
Gaitz bat chit andia,
Ceñari oi dioten
Deitcen izurria.
Lecu aietan baitzan
Leoia erregue,
Beldurrez gueldi cedin,
Genderica bague,
Deitu omen cituen
Abere guztiac,
Utcirica aldebat
Bacarric eriac.
Joan ciraden lasterca,
Alzuten lenena,
Cein baiño cein araco
Otezan aurrena.
Muno baten gañean



Leoia jarri zan,
Eta andic ojuca
Onela asi zan.
Nere seme maiteac
Da izugarria
Gure artean sortu
Zaigun izurria;
Guelditu bearra naiz
Ni zuen erregue,
Egun asco baño len
Iñor ere bague.
Zuei esateco,
Da nere ustea
Onen beste bat gende
Galtcen ez uztea.
Izurri oni omen
Deritza colera,
Eta deitu zaituztet
Guciac onera,
Nola bait Jaungoicoa
Dezagun eztitu,
Eta colera gabe
Gaitecen guelditu.
Uste det, eztitceco,
Aren mesedea,
On dala gutaco bat
Gaur emen iltcea,

Universidad de Deusto Biblioteca

Erretcen degularic
Guero aldarean,
Colerac utzi gaitzan
Lembailen paquean.
Nor dan gure artean
Gaitzica gueiena
Jaio zanetic onontz
Eguiten duena,
Au da nere semeac,
Ez daucat dudaric,
Daucana Jaungoicoa
Chit asarraturic.
Au illic aldarean
Erretcen badegu,
Bereala Jaincoa
Eztituco degu,
Guelditcen diralaric
Gure pecatuac
An goyen duda gabe
Betico aztuac.
Asi bedi bacoitza
Esaten bereac,
Adituric aurrena
Osoric nereac:
Beñere ez det izan,
Aitortuco det nic,
Aberez asetceco

Universidad de Deusto Biblioteca



Batere cupidic.
Cecenac, beiac, auntzac,
Eta basurdeac,
Bete izan dituzte
Maiz nere esteac.
Gaistaqueria oiec
Dirade nereac,
Orain esango ditu
Bacoitzac bereac.
Ez jauna ez, ojuca,
Dió aceriac,
Ez dirade oriec,
Ez, gaiztaqueriac,
Non nai beti mendean
Bici dan gendeac,
Bazcatutcen oi ditu
Bere erregueac.
Cata motzac cionez,
Bai ere otsoac,
Aiec jan oicituzten
Artalde osoac.
Asco alditan cion
Berriz aceriac
Ustu izan cituela
Arc olloteguiac.
Pecatuac esaten
Bacoitza dijoa,

Eta azquen azquena
Badator astoa.
Arrantzaz asitcen da
Bereac esaten,
Eta modu onetan
Ojuac equiten.
Jaunac, ni oroitcen naiz
Igande batean
Bazcatcen nebillela
Goicetic larrean
Iñon ere belarric
Ecin arquituric,
Eguin ez zuelaco
Luzaro euriric,
Sartu izandu nintzan
Gari celaiean,
Baña jauna eguiaz
Zan uste gabean,
Eta ecin gogora
Zait etorri niri,
Jan nituen, edo ez,
Burubat edo bi.
Atera becin laster
Itz oiec aotic,
Aceriac ojuca
Ez dago dudaric,
Esaten du, ori da,



Orichen da, ori
Emen sartu diguna
Izurria guri;
Bereala bear du
Ancaz gora jarri,
Aldarean dezagun
Ederqui etzarri.
Iduritu citzaion
Ongui gendeari
Bicia quendutcea
Asto gaisoari.
Bereala astoa
Guelditu zan illic
Ez izanagatica
Batere culparic.
Erreguec inguruan
Ceuzcan muticoac,
Nola ciran cata motz,
Aceri, otsoac,
Irri eguiten zuten
Astoa iltcean,
Ill eta ancaz gora
Surtan etzartcean.
Mundu onetan beti
Indarra dutenac,
Ez badirade ere
Mutillic onenac,

Universidad de Deusto Biblioteca



Esan oi da dirala
Chit guizon prestuac,
Estaltcen diralaco
Aien pecatuac,
Beste aldetic berriz
Gende beartsua
Ardit baten gatica
Oi da urcatua.
Baña guertatcen oi da
Au gure artean,
Bestela izango da
An gora joatean;
Ceren izango guera
Guztioc an berdin
Naiz erregue emen izan
Naiz izan arlequin.

### *Chicharra eta Chingurria.*

Iduritcen citzaion
Urriquigarria
Chicharrari auzoan
Zuen chingurria,
Ceren icusten zuen
Lertutcen lanean
Dembora piscachobat
Ondutcen zanean.



Ascotan esan cion,
Ez irriz, benetan,
Ez diat lanic eguin
Nere egunetan,
Eta uste diat nic,
Nere muticoa,
Lan eguiten duena
Dala chit astoa.
Cer! ibilli bear dec
Beti arrastaca,
Ecin gari ale bat
Carraiaturica,
Erori, eta alcha,
Beti gira, bira,
Eramatiagatic
Ale bat cabira?
Bici modu char ori
Utzac, chingurria,
Eguin zac nic eguiten
Deraden guztia.
Chingurriac jaquiñic
Gurasoetatic,
Ecin bicico zala
Eguin bague lanic,
Chicharraren esanic
Ez zuen aditu,
Eta bere lanari

Oi cion seguitu
Bitartean chicharra
Cijoan pasatcen
Uda guzti guztia
Sasian cantatcen ;
Baña gaizqui jocion
Soñua cucuac,
Uda joan eta zuen
Atceman neguac,
Eta nola bait duen
Copet itsusia,
Joan ciran chichar canta
Eta erausia,
Ceren bucaturica
Udaco asea,
Otzac ecarri zuen
Berequin gosea.
Chicharra guelditu zan
Argala, umilla,
Este cimurtuaquin
Eta erdi illa.
Oroitcen da auzoan
Badala cer jana,
Dijoa arrastaca
Chingurriagana,
Eta esaten dio
Doi doya argalez,

Universidad de Deusto Biblioteca



Adisquidia dizut
Escatcen mesedez
Zure gordaidutica
Piscacho bat cer jan,
Nolabait negu belzt au
Igaro dezadan.
Icusi zuenean
Ain argal chicharra,
Chingurriac, eguiñaz
Gogotica farra,
Ola esaten dio,
Zu onontz chicharra?
Cantari ona cera,
Bearguille charra.
Uda igaro dezu
Erausian, cantan,
Ni nebillen artean
Lertcen lan, eta lan,
Eta orain nai dezu
Chingurri nequeac
Bete ditzaten chichar
Alferren esteac?
Ez ez orrelacoric,
On da icustea
Cer dan mundu onetan
Alfer izatea.
Ni len necatu eta

Banoa jatera,
Zu gueldi egoncera,
Zoaz cantatcera.
Lagundo bear zaio
Bearguilleari,
Ez ordea beñere
Gende alferrari.

*Iguelac erregue escatcen.*

Abere mot bacoitzac,
Lengo demboretan,
Erreguea bazuten
Toqui gucietan.
Gabetanica ceuden
Iguelac bacarric,
Ceren ozta ciraden
Irteten loietic,
Eta ez da atseguin,
Naiz izan erregue,
Bicitcea loipean
Andic irten bague.
Iguel gaisoac ceuden
Arras lotsaturic,
Iñorc ez cielaco
Eguiten casoric.
Biltcen dirá guciac

Universidad de Deusto Biblioteca



Beren batzarrean
Eta diote guacen
Jartcera aurrean
Jupiter andiari,
Eta esatera,
Jauna gatoz zugana
Erregue escatcera;
Abere mot bacoitzac
Izanic berea
Guc ere nai guenduque
Albalitz gurea.
Jupiterrec, muguituz
Noicic bein burua,
Aditu omen cien
Beren erregua,
Far irria eguiñaz,
Ceren ez cequiten
Iguel choriburuac
Cer escatcen zuten:
Bada bici ciraden
Elcarren artean,
Cantatu, eta josta,
Ederqui paquean.
Esan omen cioten
Beren Jaungoicoac,
Ez zaiteztela izan
Arren ain choroac;

Universidad de Deusto Biblioteca



Ceren ez da munduan
Zori onagoric,
Nola dan bicitzea
Buru gabetanic.
Badezute non bici,
Cer jana, paquea,
Certaco nai dezute
Orain erreguea?
Gaiztoac bear dute,
Ez dago dudaric,
Elcar ill ez dezaten
Buru gabetanic,
Baña izanic ona
Zuen familia,
Cer deaurrutaraco
Du aguintaria?
Jauna eranzun zuten
Badute besteac,
Eta lotsatcen gaitu
Guc ez izateac;
Ez guera guchiago
Nosqui aiec baño;
Lotsaric asco izan
Degu oraindaño.
Ori orrela bada,
Dio Jupiterrec,
Faltaric ez dizute



Eguingo erreguec.
Au esan ondorean,
Orra non batetan:
Cerutic cinguirará
Cerbait erortcen dan,
Ematen duelaric
Alaco golpea,
Non galtcen dute arras
Iguelac cordea.
Pisca bana icara
Pasa ondorean,
Eta ezagüera
Etorri zanean,
Lasterca an dijoaz
Sartcera lembailen,
Guchienaz cana bi,
Loiean barrenen.
Zortzi egun aietan
Ez zan bat bacarric,
Loietic irtetera
Atrebitcen zanic.
Noiz bait irteten da bat,
Eta dio, *tat*, *tat*,
Erreguetzat diagu
Egur pusca andi bat.
Icusi zutenean
Ciola eguia,

Norc esan aien lotsa,
Eta errabia.
Badijoaz lasterca
Jupiterren billa,
Eta esaten diote:
Jauna esquer milla;
Gaur bidaldu diguzun
Erregue prestua,
Da itsua ta gorra,
Gañera mutua:
Beste bat nai guenduque
Ernaia, bicia,
Gendiari aguintcen
Ongui icasia.
Zoazte ortica zoazte,
Die eranzuten,
Berdin ez daquizute
Cer darabilzuten.
Bidaltcen die bada
Beste erreguea,
Ceña zan amar cana
Luce zan suguea.
Cinguiran sartu eta
Asi zan batetan,
Iguelai jarraica,
Arrapa eta jan.
An dijoaz iguesi



Bera eta gora,
Batzuec loi azpira
Besteac campora.
Madaricatcen dute
Guztiac erregue,
Obeto ciralaco
Aguintari bague.
Onela oidirade
Choroen contuac,
Ez die farra gaizqui
Eguiten munduac.
Ongui gueran orduan,
Obeto nai degu,
Galdu ta guero ona
Ezagutcen degu;
Baña nola orduan
Ez degun prochuric,
Ez oi zaigu guelditcen
Damua besteric.

### *Asto buru gogorra.*

Asto bat cebillen bein
Bazcatcen larrean
Bururaño estaltcen
Zuen belarrean.
Ain cegoan contentu

Universidad de Deusto Biblioteca



Gure aberea ,
Non dagoan Chinaco
Emperadorea ;
Belarrez ase , eta
Eguiñaz arrantza ,
Guztia zan arentzat
Festa , eta dantza.
Lepoa luzaturic ,
Bi belarriac zut ,
Arrantzaca icusten
Derala uste dut.
Onela dabillela
Batetic bestera ,
Oroitu gabetanic
Joateaz echera ,
Noicic bein luce luce
Etciñic lurrean,
Tripaz gora jarriric ,
Zancoac airean ,
Orrontz onontz giraca ,
Zan gorputz guztia
Guelditcen citzaiola
Autsez estalia ,
Acabatcen zuela
Azquenean festa
Trompeta goaz , nola
Esan bear ez da ;



Onela dabillela
Astoa mendian ,
Nausia icusten du ,
Ez chit urrutian ,
Deituaz pocho , pocho ,
Atorquit onera ,
Etsaiac dijoazquic
Or ire gañera ;
Ez aldituc aditcen
Trompet atabalac ,
Eta chistuca orronz
Dijoacen balac ?
Ator onontz lasterca ,
Edo aiz galdua ,
Ucullan an daucac
Toqui segurua.
Pocho sasi tartean
An dabil bazcatcen ,
Nausiari casoric
Ez dio eguiten.
Egur bat artu eta
An dijoaquio ,
Eta burutic bera
Erasotcen dio ,
Esaten diolaric ,
Esquer gabecoa ,
Nic oju eguiñ eta

Y iguesi oa ?
Asto madaricatu,
Nar, buru gogorra,
Noiz ezquero eguiñ aiz
Y neretzat gorra?
Ez dituc bici ire
Aita, ta aitona,
Ezagutcen zutenac
Beren zori ona!
Guacen, guacen emendic,
Guacemac echera,
Mereci ez dec baña,
Otea jatera.
Astoac nausiari
Dio eranzuten,
Pensamentu bat orain
Nengoan eguiten.
Arrapatcen banaute
Ni emen etsaiac,
Gaitcic eguingo ditet
Aien asta zaiac?
Edo aien mendean
Guelditcen banaiz ni,
Ifiñico dizquitet
Gañean chalma bi?
Ni bezalacoenzat,
Nere nagusia,



Nere ustez etsaia
Da mundu gucia.
Patu gaiztoarequin
Danean bat jaio,
An edo emen bici
Oro oro bat zaio;
Eta guerra demboran
Ecer ez izanic,
Ez oidu aberatsac
Duten icararic.

*Belea eta Aceria.*

Zur aritz luce baten
Tontor tontorrean,
Bele bat guelditu zan
Joan dan egunean.
Bere mocoan ceucan
Gazta bat guria,
Borda leio batetic
Ebatsi berria.
Aceri bat irten zan
Arcaitcen artetic,
Eta igarotcen zan
Zur aritz azpitic;
Ozta zuen gaztaren
Usaia sentitu,

Universidad de Deusto Biblioteca

Gora beguiratuaz
Bertan zan guelditu.
Icusi zuenean
Ain gazta guria,
Cincillica cerion
Aotic lirdia.
Gueldi gueldi cegoan
Zur aritz azpian,
Gazta nai, eciñ izan,
Zalez errabian.
Bere barrenen cion,
Ecin gora io!
Igotcen banaiz ere
Ez liquec balio!
Ceren nic nai banuque
Argana gora joan,
Igues eguingo liquec
Bereala egan.
Cerbait beste gauzaric
Beaiat asmatu,
*Tat tat* orainchen bertan
Zaidac gogoratu;
Eciñ obeagoco
Pensamentuba dec,
Sei minutu baño len
Gazta nerea dec.
Agur adisquedea,



Dio betic deitcen,
Zure edertasunac
Nau enamoratcen;
Moco oria dezu,
Luma beltz urdiña,
Beguia berriz galant
Argui eta fiña,
Itz batean cerade
Ain guztizco joia,
Non arquitu diteque
Beste bat doi doia.
Sinistatu nazazu,
Dudarica bague,
Egaztien artean
Ciñaque erregue,
Ceran becin ederra
Bacen du cantua;
Ala dezun, edo ez,
Or dago contua.
Beleac aditcean
Lausengacho ura,
Sentitcen du beregan
Cantatceco gura.
Ozta idiquitcen du
Gaisoac mocoa,
Bereala lurrera
Gazta an dijoa.

Aceriac algaraz
Omen cion deitu,
Orren canta ederric
Ez det nic aditu.
Orain nic gazta jaten
Deran bitartean,
Goza zaitez zu cere
Arrotasunean;
Jangoicoac dizula
Luzaro osasuna,
Zure cantu eztia,
Zure edertasuna;
Contentu izango naiz
Ni nere aldetic,
Tripa betetcen badet
Maiz zure mocotic.
Au esan, eta joan zan
Bere gaztarequin;
Belea gueldituu zan
Sabel utsarequin.
Lausengarien itza
Duenac sinisten,
Onelacoche chalmac
Ditu eramaten.

Universidad de Deusto Biblioteca



*Ollarra eta Aceria.*

Ollar bat cebillen bein
Faza ederrean,
Soroa jorratuaz,
Jaten goiz batean.
Cacaraza eguiñaz,
Orra non batetan,
Igotcen dan ollarra
Arbolera egan.
Beguira negoquion
Ni baster batetic,
Ecin beguiac quenduz
Iñolaz argandic.
Gain gañean cegoan
Jarriric ederqui,
Ollar ederragoric
Ez det nic icusi.
Atzapar bat bazuen
Cana batecoa,
Atceco azcazala
Cenzadarrecoa;
Bullarra chit lodia,
Lepoa laburra,
Begui ori gorriac,
Mocoa macurra;

Universidad de Deusto Biblioteca



Atceco lumac jo nai
Cioten burua,
Cincillic goitic bera
Eguiñaz arcua;
Galdor gorri andia
Ceucan ain zuzena,
Non artan icusten zan
Beraren quemena.
Aren luma ederrac,
Eguzquiac joric,
Distiatutcen zuten
Guztiz urrutitic,
Alaco moduan, non
Ez nezaque esan
Gure ollar ori cer
Colorezcoa zan;
Ain laster cirudien
Cillarra, urrea,
Non perla, esmeralda,
Non diamantea.
Ari beguira ecin
Nintzan ni aspertu,
Ez pensatu derala
Ecertan edertu.
Oraindic sei minuto
Igaro baño len,
Aceri zar andi bat



Orra non datorren.
Icusten du ollarra,
Guelditcen da bertan,
Betic gora asten zaio
Onela itzquetan;
Viva, viva, maitea
Auchen bai berria,
Paqueac eguin dira,
Gaur mundu guztia
Bici diteque aisa,
Beldur gabetanic,
Iñorc ez du aurrera
Izango etsairic;
Catu eta chacurrac,
Otso arcumeac,
Aceriac, ollarrac,
Guera adisquideac.
Jachi zaitez lasterca,
Beldurric ez izan,
Elcarri lastanchobat
Beaiogu eman.
Ollarrac bereala
Dio eranzuten,
Zaude pisca pisca bat,
Orra non datocen
Iru aceri chacur,
Orra otadian

Lasterca lau oñean
Lertceco zorian.
Ez dago ez dudaric,
Diozu eguia,
Oiec dacarte seurqui
Paqueen berria.
Aditu becin laster
Chacurren icena,
An dijoa aceria
Alduen lenena.
Zaude, zaude, ollarra
Asten zaio deitcen,
Bereala nazazu
Emendic jachitcen,
Ez dago guelditceco
Gure aceria,
Badirudi iguesi
Dijoan erbia.
Guztiz presa det, dio,
Bereala or naiz,
Guc onelaco presac
Oi ditugu chit maiz.
Guztiz asco jaquiña
Zan aceri zarra,
Baña ollarra ere
Ez bide zan narra.



*Auntzac eta aquerrac.*

Munduan embidia
Batac besteari
Izaten oi diogu
Chit maz, edo beti.
Auntzac icusirica
Cirala aquerrac,
Gendeen ara bera
Guztizco ederrac,
Eta aiec eraguin
Oi zutela farra,
Falta citzaielaco
Cincillic bizarra,
Joan omen ciran beren
Jaungoicoagana,
Esanaz, jauna, gatoz
Gaur berorrengana
Adiarazotcera,
Cer lotsagarria
Dan gutzaz eguitea
Gendeac irria,
Cergatic cocotcean
Ez degun bizarric,
Aquerren motacoac
Gu ere izanic.

Universidad de Deusto Biblioteca

Jauna gure cocotza
Bizarrez betea
Guelditceco asco da
Zuc nai izatea;
Esperantza daucagu
Echera emendic
Biurtuco guerala
Bizarrez jantciric.
Jaungoicoa onetan
Cegoan glorian
Auntzac enzunaz, irriz
Lertceco zorian,
Eta esaten die,
Zoazte emendic,
Ez esan orrelaco
Choraqueriaric;
Baña negarrez auntzac
Omen ciran asi,
Arat onat ibilliz
Beca sasiz sasi.
Cupituric orduan
Jaincoa guztia,
Eta artcen zuela
Manera eztia,
Orra, esan cioten,
Bertatic bizarra,
Munduac eguingo du



Orain zuez farra.
Contrara guertatcen da
Gaurco egunean,
Aquerrac auntz nai dute
Izan gueinean;
Guizonac, andre moten
Manerac arturic,
Icusten dirade maiz
Chimu biurturic.
Auntzac auntz beau izan,
Aquerrac aquerra,
Guizonac indartsua,
Andreac ederra,
Bestela buruz bera
Joangoda mundua,
Eta guelditUco da
Betico galdua,
Ematen zaiolaric
Culpa Jaincoari,
Norc eman bearrean
Bere buruari.

*Leoia eta Chimuac.*

Leoi bat irten zan bein
Zulotic eicera,
Gosez irriquituric,

Tripa betetcera;
Alferric ibilli zan
Goiz santu guztian,
Ecin topaturica
Eicica mendian.
Muno baten gañera
Igo ondorean,
Necaturic cegoan
Lo bete betean;
Orra non bat batetan
Chimu irrintziac
Igarotcen diozcan
Bere belarriac.
Esnatcen da saltoan,
Jartcen da beguira,
Irrintcia datorren
Aldeco mendira,
Begui zorrotza zuen,
Urrun egon arren,
Eiza icusitcen du
Basoan barrenen.
Badijoa poliqui
Tripaz lurra joaz,
Istua dariola
Jateco gogoaz.
Alderatu zanean
Baso barrenera,



An dijoaz chimuac
Arbolen gañera.
Amorratutcen zaio
Chalma andi onequin;
Gosez irriquituric
Ez daqui cer eguin;
Artcen du chimu batec
Escuan ezcurra,
Tiratu eta dio
Odoltcen sudurra;
Beste batec autsitcen
Du berriz egurra,
Eta zauritcen dio
Chit bizcar ezurra;
Anca alchatu eta
Chacurraren guisa
Egiten dio batec
*Zar zar* goitic pisa:
Azquenic beste batec,
Jasoric buztana,
Eguin cion gauzabat
Esaten ez dana.
Onela cital aiec
Leoi indartsua
Uzten dute burlaca
Arras lotsatua.
Burua macurturic
Universidad de Deusto Biblioteca

Universidad de Deusto Biblioteca



Badago leoia ,
Ez dezaque irichi
Arbolaren goia.
Urgunca badijoa ,
Bide bazterrera ;
Etciñic eguiten du
Illaren papera.
Chimuai , icusiric
Odola ichurtcen ,
Eguiazqui il dala
Zaie iduritcen.
Bere berealachen
Chimu familia
Goitic bera saltoca
Jaiztenda guztia ;
Inguratutcen dute
Illaren gorputza ,
Algaraca diote ,
Au triparen utsa !
Batac eguiten dio
Ortzca belarritic ,
Besteac tiratutcen
Dio buztanetic ;
Ori ecer ez dala ,
Au bai ausarcia !
Larrutu nai diote
Iruc epurdia.



Alchatcen da batetan
Leoia lurretic ,
Ez zaio bat itzultcen
Dagoan lecutic ;
Iltcen ditu gustiac
Ortzaz , atzaparraz ,
Eta buztanarequin
Ezquer escui joaz ,
Utzitzen duelaric ,
Cer negargarria !
Lurra, zan becin zabal
Chimuz estalia.
Argatic esan oida ,
Etsai aguiria
Ez dala ain gaiztoa
Non dan estalia.

*Euliac.*

Abarasca batean
Cegoan estiac
Beregana cituen
Millaca euliac.
Jan baño jan naiago ,
Nabarbenquerian
Cebiltzan triparaño
Sarturic eztian.

Universidad de Deusto Biblioteca



Azquenean gustiac,
Oñac itsatsiric,
Bertan gueldítu ciran
Ase eta illic.
Au eguiten balute
Euliac bacarric,
Ez litzaque, cristabac,
Cer izan penaric;
Baña izan oi dira
Guizonen erdiac,
Batzuec tripazaiac,
Besteac ordiac:
Eta iltcen oi dira
Gaztetasunean,
Bici nai dutelaco
Ase ta betean.

*Suguea eta Necazaria.*

Guizon bat cijoan bein
Celaitic echera,
Goiz guztian lan eguin,
Eta bazcaltcera.
Icusten du bidean
Etciñic suguea,
Otzac erdi illica,
Corderic gabea;



Cupituric sartcen du
Gaisoac colcoan,
Ango beroarequin
Pizteco asmoan.
Echera joan zaneco
Suguea asi zan,
Colcotica campora
Atera nairican.
Campora botatceco,
Guizonac artcen du,
Eta sugue gaiztoac
Ortzca pozoitcen du.
Orra esquer ederrac!
Citalen escutic
Ez du izango iñorc
Beñere gauz onic.
Illa bete baño len
Sugue ura bera,
Otzac icaraturic,
Dator sucaldera.
Ojuca asten dira
Echeco guztiac;
Jarraitutcen diote
Morroi nagusiac;
Sartcen da uculluan,
Badabiltza billa,
Arquitcen dute eta

Universidad de Deusto
Biblioteca



Uzten dute illa.
Citalqueriac ez du
Beñere gauz onic,
Eta iñorc ez du nai
Icusi citalic.

*Arrantzalea eta arraia.*

Ascotan oi bezala,
Joan zan ibaiera
Bein batean guizon bat,
Arrantz eguitera;
Ozta amuaz zuen
Ur gaña icutu,
Arrai chiqui pollit bat
Zuen arrapatu.
Bacebillen cincillic
Saltoca amutic,
Baña ez zan iñolaz
Igues eguiteric.
Etsi zuen orduan
Chit amorraichoac,
Esaten omen zuen
Amutic gaisoac;
Certaco nazu zuc ni
Chiqui char gaztea?
Nola nai dezu zure



Tripa betetcea?
Urte bico ibaian
Utzitzen banazu,
Andi eta guicena
Atcemango nazu;
Orain berdiñ, eguia
Garbi esateco,
Ez naiz aguin tartebat
Zuri betetceco.
Amorraichoac zuen
Ustez arrazoia,
Guero izango zuen
Obea sasoia;
Baña arrantzaleac,
Escuan arturic,
Eranzun omen cion,
Aurrecoetatic
Chit errepain eder bat.
Icasi nian nic,
Ondec ic aditcea
Gaur nere aotic;
Obea dec escuan
Seguru choria,
Ez airian dabillen
Egazti andia:
Oaquit paderara,
Oaquit ichillic,

Esperantzac ez oi dic
Betetcen triparic ;
Peregill , tipulaquin
Olio tartean
Igari eguingodec
Frigitu artean.
Arrantzalearentzat
Ez da cer esanic ,
Ceren guizonarentzat
Jaunac ala nairic ,
Dirade abereac
Chiqui , ta andiac ,
Baita ere arraiac ,
Eta egaztiac ;
Bestela izango zan
Chit cupigarria
Emen icusten degun
Amorrai chiquia ;
Gaizqui dirudiena
Da arrantzalea
Gaisoaz farr-eguiñaz
Ala egotea.

*Leoia zarrez iltcen.*

Leoi guztiz andi bat ,
Ez ill bai illean ,



Luce luce etciñic
Cegoan lurrean ,
Urteen zamac ceucan
Ecin iguituric ,
Bada ez zan arquitcen
Argan beste miñic.
Orruaz mendiz mendi
Zanean len bici ,
Abereac cebiltzan
Argandic iguesi ,
Bat bacarrica ez zan
Guztien artean
Ichorongo cionic
Iñolaz bidean.
Orain icusirica
Etciñic lurrean ,
Esan deran bezala ,
Ez ill bai illean ,
An dijoaz lasterca
Chiqui ta andiac ,
Eta ito nai dute
Gaisoa guztiac.
Citalen contua da ,
Gaisoa danari
Eguin nai izatea
Farra , eta irri.
Guizon prestuac ez du

Onela pensatcen ,
Gaisoenari dio
Gueina laguntcen.
Onetan nai dutenac
Artu lecioa
Iracurri bezate
Evangelioa.

*Artzaia eta Ardiac.*

Atozte onontz laster
Atozte , anaiac ,
Deadar eguiten du
Perucho artzaiac ,
Otso andi bat dator
Mendi oiec bera ,
Zuzen zuzen onera ,
Ardiac jatera.
Badijoaz anaiac ,
Bi chispa arturic ,
Beldurrez gueldi dedin
Ardi gabetanic.
Allegatcen dirade
Lertceco zorian ,
Eta ez da agueri
Otsoric mendian ;
Biurturic badaude



Soseguz echean ,
Orobat guertacen da
Biaramonean.
Bigarren chalmac dauzca
Chit ereztaturic ,
Urrengoan ez dute
Eguiten casoric.
Orduan eguiazqui
Otsua jachi zan
Menditic artaldera ,
Eta an asi zan
Ardiric galantenac
Iltcen , eta jaten ,
Eta , lastima zana ,
Artaldea galtcen.
Guezurra esan zuen
Bi bider artzaiac ,
Eta ez cioten nai
Sinistu anaiac.
Guezurtiac eguia
Baldin badu esaten ,
Guezurtia dalaco
Ez zaio sinisten ;
Onela eguiten du
Beretzat caltea ,
On da beti eguia
Non nai esatea.

Universidad de Deusto Biblioteca



*Otsoa eta Cigoña.*

Jaquiña da cigoña
Dala egaztia,
Lepa luce, moco me,
Andi, beltz-zuria.
Otso bat cegoan bein
Arcume bat jaten,
Eta ezur bat zaio
Estarrian sartcen.
Itotcera cijoan,
Ecin ateraric,
Ez ceucan iñondica
Erremedioric.
Cigoña bat gañetic
Zan egan pasatcen,
Otsoa inciriaz
Asten zaio deitcen;
Icusten du cigoñac
Aoa zabalic,
Iñolaz ere ecin
Asnasa arturic,
Jachitcen zaio, eta
Utziric beldurra,
Atera bide cion
Mocoaz ezurra.



Cigoña pocez dago
Beteric guztia,
Ichoroten otsoac
Zor dion saria,
Atera zuelaco
Estutasunetic,
Bada guelditucо zan
Bestela itoric.
Icustean cigoñac
Cerbait zuela nai,
Otsoac esan cion
Adizazu anai,
Bazoazque emendic
Pocez contatcera,
Osorica lepoa
Dezula atera
Gaur goicean, maitea,
Zuc nere aotic,
Estarrian mocoa
Sartu ezqueroztic.
Ez dauca zori on au
Nai duen guztiac,
Bacarric eman dizu
Nere estarriac.
Errepañac oi dio
Eguin ezazu on,
Eta eguin ezazu

Universidad de Deusto Biblioteca



Ez daquizula non.
Otso gaiztoa beti
Gure igues dabill,
Beldurrez ez dezagun
Atzeman, eta ill;
Eta cigoña berriz
Bici da gurequin,
Ceren ez dizaioque
Iñorc gaitcic eguin

*Choarrea eta Erbia.*

Arrano batec zuen
Erbi bat atzeman,
Eta ceucan itotcen
Bi atzaparretan;
Choarre batec, ustez
Toqui segurutic,
Oju eguiten dio,
Esaten ez dec ic
Ez dala lur gañean
Arquitcen mutillic,
Lasterca í aimbat
Joan ditequeenic?
Orain certan ago or,
Erbichoa, gueldi
Orren mutill ariña



Aicen ezqueroz í?
Onela itz eguiten
Dion bitartean,
Gabiroi bat gañera
Dator bat batean,
Artcen du choarrea,
Aren atzaparrac
Quentcen diozca bere
Burla eta farrac.
Iñorc mundu onetan
Ez dezaque esan,
Ur onetatica nic
Ez det bear edan.
Usteric guchiena
Guc degun orduan
Arquitu oi guerade
Besteen lecuan.
Argatica beñere
Zori gaiztocoaz
Ez degu egon bear
Farraz eta burlaz.

*Iturrico oriña.*

Nequez baño arquitu
Zuen iturria

Universidad de Deusto
Biblioteca



Orin batêc, il nairic
Ceucan egarria.
Edan zuen orduan,
Gaisoa zan ari
Urean beguiratcen
Bere buruari;
Ez da cer farric eguin
Iracurtzalleac,
Bacerate benturaz
Nescacha gasteac;
Jaquin bear dezute
Gaur dan egunetic
Ez duela oriñac
Beste ispilluric.
Guztiz ederra dala
Zaio iduritcen,
Batecere adarrac
Dute chit choratcen;
Baña ditu arquitcen
Aren mesedeac
Chit itsuiac bere
Zanco luce meac.
Zanco laburragoac
Baldin banituque,
Nere pareric, cion,
Iñon nic ez nuque.
Ah! eman bacizquiran



Gure Jaungoicoac
Egoquichiagoac
Nere bi zancoac!
Onela dagoala
Marmar iturrian,
Zangac aditcen ditu
Ez chit urrutian.
Laisterca asitcen da
Mendira igotcen,
Zacurrac ondotica
Diote jarraitcen.
Igues eguin duela
Uste duenean,
Guelditcen da batetan,
Otadi batean,
Lotu ciozcalaco
Bere bi adarrac
Otetica otera
An cegoan larrac.
Zacurrac gañeratcen
Zaizca gaisoari,
Ill eta bertan usten
Die nausiari.
Orra adar ederrac,
Zanco itsusiac,
Oiec chit oñac, eta
Aiec galgarriac.

Universidad de Deusto Biblioteca



Choroac engañatcen
Oi ditu ichurac,
Ez ordea beñere
Centzua dutenac.

*Suguea eta lima.*

Ortzca ari citzaion
Suguea limari,
Limac esaten cion
Alferric aiz ari,
Ez dic ecer balio
Ire aleguiñac,
Camustuco dizquiat
Ortz eta aguiñac.
Casoric eguin gabe
Ari zaio ciñez,
Ez at, dio, utcico
Ortcetaco miñez.
Berandu baña noiz bait
Duque ezagutcen
Ortzac dijoazela
Guztiac camusten.
Usten dio limari
Chit damuz, esanic,
Ascoz indar gueiago
Nic baño daucac ic.



Eroqueri andia
Oi dec nerequico
Aculloa jotcea
Bortizqui ostico.

*Adisquede bi eta artza*

Adisquede andi bi
Dijoaz bidean,
Elcarrequin itzquetan
Humore onean:
Artz andi bat zaiote
Basotic irteten,
Icarac arbolara
Bata da igotcen;
Bestea guelditcen da
Gaisoa bacarric,
Artz andiari ecin
Arpegui emanic.
Cer eguin onelaco
Estutasunean?
Illa balitz bezala
Jartcen da lurrean:
Nola artzac ez duen
Gorputz illic jaten,
Usai eguin ondoren
Da aurrera joaten.

Bereala jachitcen
Da arbolacoa,
Eta laguna gana
Lasterca an dijoa;
Adisquidea, dio,
Chit det nic atseguin
Zu emen arquitcea
Osasunarequin;
Cer icarac ditudan
Zugatic eraman
Beldurrez zu noiz artzac
Bear cinduen jan!
Ichilic belarrira
Dizu arc itzeguin,
Cer esan ote dizun
Nai nuque nic jaquin.
Ara cer esan diran
Artzac belarrira;
Munduan adisquide
Mota asco dira;
Ez dezu artu bear,
Jaquizu gaurdandic,
Zure adisquedetzat
Guizon beldurtiric.



*Arcumea eta Otsoa.*

Bildots guicen guicen bat
Dago arteguian,
Be eguiten duela
Amaren ansian;
Belar izpi bat ez zan
Aren tripan sartcen,
Iru ardic esnea
Cioten ematen.
Beguira dagoala
Ate zirritutic,
Aguertzen zaio norbait
Campoco aldetic;
Artzaia zala uste
Zuen lembician,
Guero icusi zuen
Otsoa sasian.
Asten zaio ojuca
Barrendic esaten,
Jaquin beazu preso
Naucatela emen;
Au onela ez balitz,
Emendic irtenic,
Ez nezaque nic utzi
Otsoaren antzic.

Universidad de Deusto
Biblioteca



Otsoac itz cuntza au
Aditcearequin,
Dio, ez det procuharic
Izango onequin;
Seguru dagoela
Au da señalea,
Nitzaz barrendic farraz
Burla eguitea.
Izaten oi da guizon
Chit icaracoya
Toqui segurutica
Guztiz fanfarroya.

*Urdalla eta beste gorputzaren parteac.*

Ao, eta beguiac,
Oñ, eta escuac,
Urdallarequin ceuden
Chit asarretuac;
Beguiac esan zuten,
Gu gau eta egun
Or gabilza jana non
Icusico degun.
Aoac cion berriz,
Nere ortz aguiñac,
Camusturic daucatzi
Lan azco eguiñac;



Oñac esaten zuten,
Naiz ez izan gura,
Joan beardegu beti
Jana dan lecura;
Azquenean escuac
Ceuzcan necatuac
Beti betico ecin
Jan ala bilduac:
Guztiac queja ciran
Urdalla bacarric
Cegoala lanica
Eguin gabetanic.
Eguiten dute junta
Edo batzarrea,
Ceña izan omen zan
Guztiz asarrea,
Eta bucatcen dute
Esatearequin,
Ez degu guc gueiago
Bear lanic eguiñ,
Batac jan besteac lan
Da eraqueria,
Urdallac oi darama
Gure lan guztia.
Esan zuten bezala
Badaude gueldiric
Bi egunean lanic

Universidad de Deusto Biblioteca

Eguin gabetanic.
Asten zaie orduan
Aitutcen indarra,
Urdallac barrendica
Eguiten du farra.
Cer dau? esaten dute,
Cer zaigu pasatcen?
Indarra pisca bana
Ari zaigu juaten.
Orduanche esaten
Diote urdallac,
Lengo ancic ez ditec
Gaur gure masallac.
Nola nai zute izan
Ni gabe indarric,
Zuec bildutacoa
Urtutcen badet nic!
Ez dezute icusten
Ortz eta aguiñac
Errot arri guisara
Daudela eguiñac?
Oiec chetcen dutena
Nic derala urtcen,
Eta guero guztioc
Guerala mantentcen?
Ez badet nic urtutcen
Egun oro jana,



Zuen neque guztia
Dala alfer lana?
Orra nola egun bi
Ozta igaroric,
Zaudezten indar gabe,
Eta erdi illic.
Arrazoi au aditu
Eta ondorean,
Guztiac sartu ciran
Berriz batzarrean.
Deitcen dute urdalla,
Dijoa lasterca,
Artcen dute erdian
Emanaz besarca,
Eta esanaz, orain
Diagu aitortu,
Y becin mutill latzic
Ez dec iñon sortu;
Norc esan cezaquean
Ezcutuco lana
Zala gorputzarentzat
Bearrena zana!
Munduan guchiena
Uste dan personac
Eguiten oi dituzte
Lanic bearrenac,
Eta icus dezazun

Universidad de Deusto
Biblioteca



Dala au eguia ,
Iracurri ezazu
Urrengo ipuia.

*Jaquintsuna eta necazaria.*

Necazari batec du
Guizon bat icusten,
Liburua escuan ,
Eta paseatcen.
Biac elcarri zaizca
Asitcen izquetan,
Lena necazaria ,
Manera onetan.
Ongui ona da , jauna ,
Berorren bicia !
Obe du ez dan jaio ,
Ah ! necazaria !
Guc eguin beardegu
Urte guztian lan ,
Beroc bici ditecen
Pasea , eta jan.
Munduco gauzac dira
Ongui desberdiñac ,
Izan arren guztiac
Jaincoac eguiñac.
Certaraco dirade



Beron liburuac ,
Ez bada nastutceco
Alferren buruac.
Quendu bear liteque
Chit alferqueria ,
Orduan guenduque guc
Lanaren erdia ,
Gueroztica guiñaque
Ascotzaz obequi ,
Ez liraque izango
Beroc ere gaizqui.
Adisquidea , dezu
Ederqui itz eguin ,
Eranzun cion , baña
Beardezu jaquin ,
Ez daudela munduan
Gauzac ain desberdin ,
Eta bacequiela
Jaincoac cer eguin.
Buruac eguiten du
Lanica gueiena ,
Iduriric necatcen
Dala guchiena ,
Eta esana dago ,
Baldin bada abilla ,
Buru batec balio
Dituela milla.

Universidad de Deusto Biblioteca



Esan zarazu niri
Zuc, necazaria,
Norc eracutsi zuen
Ereiten garia?
Norc elorri churian
Sagarra chertatcen?
Norc sagar tolareac
Zur-olez eguiten?
Norc sortuac dirade
Aitzurra, goldea,
Laiac, eta bostortza,
Eta besabea?
Zu ocan zurrungaz
Zaudenean lotan,
Nor baitec bere guelan,
Asco gaberditan,
Lau bider nastu oi du
Gogotic burua,
Escuetan arturic
Bere liburua.
Asmatcen badu cerbait,
Guertatu oi dana,
Guizonac eguin dezan
Errazago lana,
Gueiago eguiten du
Buruz guizon onec,
Ecen ez escuaquin



Eun milla guizonec.
Beguira iraquiten
Dagoan paciac
Cein aisa eramaten
Dituen onciac,
Naiz izan bere contra
Aice mot guztiac,
Eta marea andi,
Edo ur biciac.
Pacia bat urequin
Icus zazu nola
Dabillen an errota,
Emen berriz ola.
Eciñ eguinduena
Gure aleguiñac,
Eguiten du pertzaco
Uraren lurriñac.
Lurriñaren indarra
Ezagututcea
Izan da buru baten
Abillidadea;
Argatic esaten da
Buru batec milla
Balio dituela
Baldin bada abilla.
Jaquin bear da bada,
Da indartsuena,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Ez gorputz bortizcoa,
Bai jaquintsuena.
Chispa batequin amar
Urteco gaztea
Ainda bortitza gaur, non
Guizon goiantea.
Gueiena daquitenac,
Gaurco egunean,
Iduquitcen oi dute
Mundua menean.

*Changurruac.*

Itz eguiñ omen zuten
Batzarre batean
Changurruac atcerontz
Joateco gañean,
Icusiric chit zala
Modu itsusia,
Eta dudaric gabe
Chit lotsagarria.
Nore bere humeari,
Esan omen zuten,
Eracutsi beaio
Aurrerontz ibiltcen,
Oitura au emanaz
Jaiotcen danetic



Utzi gabe ematen
Atzerontz pausoric.
Biaramon goicetic
Omen dira asten
Humechoac aurrerontz
Erabilliarazten,
Atzaparrac biguñac
Dituzten artean
Aurrerontz eraguiñaz
Atzerontz ordean.
Ari dira onela
Ciñez gurasoac
Egun oro zuzentcen
Humeen pausoac.
Alferrica eguiten
Dute aleguiña,
Ecin garaitu dute
Semechoen griña;
Atcerontz icustean
Beren gurasoac
Humeac daramatci
Oien egemploac.
Argatic changurruac
Gaur ere dabiltza,
Beti atcerontz pauso,
Socaguille guisa,
Esaten digutela,

Universidad de Deusto Biblioteca



Emac egemploa,
Nai badec seguitcea
Ire lecioa.

*Aita bere semeaquin.*

Necazari zar bat nic
Ezagutu nuen,
Ceñac bere echean
Lau seme cituen,
Lauac ain languilleac
Ain mutill azcarrac,
Non beste alacoac
Oi dira bacarrac.
Falta bacar bat zuten
Bañan au andia,
Eta zan lauac elcar
Ecin icusia.
Echean iscambilla
Icusiric, aita
Chit triste egoten zan
Aiec ala naita.
Jaincoac lagunduric
Egun on batean
Pensamentu bat zaio
Etortcen oean.
Beregana deituric



Esaten diote,
Nere seme maiteac
Adinazazute;
Ebaqui beazute
Maquilla me bana,
Eta guero etorri
Lauac neregana.
Obeditu cioten
Bere lau semeac,
Baita ere eraman
Beren maquill meac.
Orduan esan cion
Seme bacoitzari,
Puscatu bear dirac
Maquill ori niri.
Laister zuen bacoitzac
Berea puscatu,
Lan onec ez cituen
Chit asco necatu.
Orra, esaten die,
Orra cein errazqui
Bacoitzac eguin duen
Maquilla bi erdi.
Orain beste lau maquill
Bear dira lotu,
Eta beaituzute
Loturic puscatu.

Universidad de Deusto
Biblioteca



Eguiten dute sorta
Beren maquillaquin ,
Ecin puscatu dute
Lauen indarraquin.
Ari dirade lertcen
Gaisoac alferric,
Ez da puscatutceco
Lauetan indarric.
Orduan cien aitac
Semeai esan ,
Orra nere semeac
Elcartea cer dan ;
Izaten bacerate
Elcarrequin etsai ,
Zuec garaituceco ,
Ascoco da nor nai ;
Baña maquillen guisa
Elcarturic ongui,
Ez dituc gai izango
Zuenzat amabi.

*Anton echegalgarria.*

Ustez beti jardungo
Zuela lanean ,
Oficio batean
Ez bazan bestean ,



Artu cituen Anton
Echegalgarriac
Oficio mot asco ,
Ez bazan guztiac.
Arotzaz gañera zan
Errementaria ,
Arguiña , capaguiña ,
Eta dendaria ;
Guero berriz gañera
Zan zapataria ,
Itz batean Anton zan
Bear zan guztia.
Eciñ esan diteque
Ceucan fantesia ,
Ez ere erricoac
Cien embidia.
Bere auzoan zuen
Guizon bat arguia ,
Izengoiti emalle
Guztizco andia.
Onec esaten zuen
Carrican , ferian ,
Lagunaquin arquitcen
Zan toqui guztian ,
Apostura eguingo
Diot edoceñi ,
Eta , ala nai badu

Universidad de Deusto Biblioteca



Antoni berari,
Asmatcen derala nic,
Cer zaion guertatcen
Lau urteren barrenen,
Ez bada len iltcen.
Ez du jatecorica
Izango echean,
Ez ere jaquirica
Sartceco eltcean.
Oficio bat ongui
Bear da icasi,
Ez milla oficio,
Eta millac gaizqui.
Oraindica lau urte
Ez ciran pasatu,
Onec esan zuena
Bera zan guertatu.
Antonec ecer ongui
Ez zuen eguiten,
Eta asi citzaion
Gendea atceratcen
Alaco moduan, non
Ez zuen iñondic
Illabete osoan
Egun bico lanic.
Auzocoac esaten
Zuen orduanche,



Sarri asico zaigu
Anton echez eche.
Argatica beñere
Ez da bear aztu,
Bi oficioc iñor
Ez du aberastu,
Eta bitatic gora
Dituzten guztiac
Izan oi dira beti
Eche galgarriac.

*Arratoi eta sagüen batzarrea.*

Zapiron ill ezqueroz
Sagu ta arratoiac,
Millaca sortu eta,
Ceuden guztiz joiac,
Ceren beste catuen
Beldurrica gabe
Ciraden beren eche
Guztiaren jabe.
Baña illobacho bat,
Chit mutil sendoa,
Zapironec bazuen
Bere antcecoa.
Demborac eguin zuen
Guztiz eiztaria,

Universidad de Deusto Biblioteca

Egun oro bazuen
Lanaren saria.
Ernaia zan, bortitza,
Gañera catarra,
Bere aitona becin
Mutico azcarra.
Goicean, arratsean,
Ordu guztietan,
Usaica an cebillen
Beti zocoetan.
Ez zuten arratoiac
Besteaz beldurric,
Icaratcen cituen
Onechec bacarric;
Ceren estu estuan
Arquitcen baciran,
Beste edoceñequin
Burrucatcen ciran,
Eta omen cituzten,
Ala det aditu,
Bein baño gueiagotan
Cembait elbarritu.
Catar deaurru ori
Baldin iltzen balitz,
Esaten zuten, ongui
Guinduzquec gu anitz:
Icusia ceagoc



Segurqui bestela,
Ecin bicico gaituc
Luzaro onela.
Atera nai badegu
Jatera zulotic,
An diagu gañean
Ortzac aguerturic.
Ez baguerade berriz
Irteten lembailen,
Sarri asico gaituc
Elcar jaten emen.
Oien artean zan bat
Biciro andia,
Bizar lucea, eta
Chit ille zuria;
Urte asco cituen,
Zan asco jaquiña,
Mairan jan izan zuen
Lau bider iriña.
Onec esaten die,
Baciaquiat nic,
Nola guindezquean gu
Atera emendic;
Baita ere biurtu,
Ceinta dan azcarra,
Eguiten diogula
Burla eta farra.

Universidad de Deusto Biblioteca



Bein baño gueiagotan
Icusi dedanaz,
Lo eguiten dic beti
Catarrac egunaz:
Lepoan cascabel bat
Ifintcearequin,
Igues eguiten erraz
Dec soñuarequin;
Locarriaz lotutcen
Ez dec gaitz lepoa,
Cergatic nere ustez
Pisua dic loa.
Guztiai citzaien
Ongui iduritu;
Baña iñorc ez zuen
Beretzat aditu.
Batac esaten zuen,
Ni nago gogorra,
Besteac, ni itsua,
Besteac, ni gorra.
Edoceñec ematen
Oi du consejua;
Baña norc eguiten du?
Or dago contua.



*Atsoa eta arcacosoa.*

Gure goico bicitzan
Bici zan atsoa
Zan elizaracoia
Zan Jaungoicozcoa.
Beti mar mar cegoan
Echean elizan,
Beti paternosterrac
Esaten arizan.
Ez cituen utzitcen,
Cer nai guerta cedin,
Naiz catarroa izan,
Naiz sabelean miñ,
Egun oroco meza,
Errosarioa,
Eta besperondoren
Zan calbarioa;
Baña zuen gaisoac
Eraman chiquia,
Edocein gauzac zuen
Estutcen guztia.
Egun batez arizan
Errabiz atsoa
Ecin arrapaturic
Gonan cucusoa;

Eital orrec ez dirac,
Cegoan esaten,
Oean ez campoan
Paqueric ematen;
Ez diat igarotcen
Beñere egunic
Jaungoicoari otoitz
Eguin gabetanic,
Ire ortzetatica
Utzi nazan arren
Ala, edo onela,
Ni libre lembailen.
Itz oiec aditcean
Nengoan pensatcen
Cer gauzac Jaincoari
Zaiozcan escatcen.
Sentitcen det onetan
Negar inciria',
Lasterca noa gora,
Odolez bustia
Topatcen det atsoa
Etciñic lurrean,
Alquitic eroria
Sucalbazterrean.
Salto eguin ondoren
Gonatica gora,
Arcacoso gaiztoa



Igozan lepora.
Atcera eguin nairic
Igues eguiteco,
Eta guero lurrean
Oñaquin iltceco,
Erori ta jo zuan
Erruz suburnia,
Eta idiqui cion
Buruan zauria.
Orduco aren oju
Eta deadarrac!
Gañera arc eguiten
Cituen negarrac!
Ordu bi guchienaz
Egon zan onela,
Cirudien larrua
Quentcen ciotela.
Negarrac utci eta
Asten da atsoa,
Arra eta democa,
Ceren cucusoa
Iguesi joan citzaion,
Eta arratsean
Beldur zan izan cezan
Berequin oean.
Au da guertatcen dana
Cristau ascorequin,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Ecin duten orduan
Nai dutena eguin ;
Baña engañatutcen
Dirade gaisoac
Guizonac , agureac ,
Andreac atsoac ,
Baldin uste badute
Gure Jaungoicoac
Enzungo dituela
Aien errezoac ,
Iguesi bidaltceco
Udan cucusoac,
Ez badira garbitcen
Echeco zocoac.
Gure otoitzac dira
Gauza chit ederrac ,
Ez ordea baguera
Otoitzle alferrac.
Errezoac eguiten
Diran bitartean,
Jardun bear du beti
Bacoitzac lanean.
Ez badegu ereiten
Soroan acia,
Ez zaigu etorrico
Cerutic garia ;
Eta badaucatcigu



Ciquiñac zocoac
Ez zaizquigu faltaco
Chimitz cucusoac.

*Astoa eta iguelac.*

Astobat cijoan bein
Egur zamarequin ,
Pensamentu illunac
Eguiñaz berequin.
Bide lucea ceucan ,
Pisua zan zama ,
Oguei urte baciran
Il zala aren ama.
Gañera ceucan guztiz
Andia gosea ,
Ez zan milagro triste
Gaisoa joatea.
Cinguiradi batean
Orra non dan sartcen ,
Eta , arrantz eguiñaz ,
Asten dan esaten ,
Madaricatua, bai,
Madaricatua ,
Jaincoac niri eman
Diraden patua.
Au enzutean ango

Universidad de Deusto
Biblioteca



Iguel cantariac
Ichi omen cituzten
Beren belarriac,
Ez aditceagatic
Aren deadarrac,
Ceren bestela lertu
Nai cituen farrac.
Batec esaten dio
Saietsera joanic,
Ez dago emen, jauna,
Erremedioric,
Ona gu ere nola
Gueran emen bici,
Jaio guiñan ezqueroz
Ez degu icusi
Beste gauzaric, baicic
Loya eta ura;
Ez izanagatica
Guztiz oien gura,
Onelache Jaincoac
Dauca aguindua,
Ez balitz bezela da
Guretzat mundua;
Eta jaquin bear du
Bere mesedeac,
Millaca, diotenez,
Dira abereac



Bicitcen diradenac
Lurpean sarturic,
Icusten ez dutela
Seculan arguiric.
Aiec beti contentu
Omen dira ala,
Ez degu izan bear
Guc ere onela?
Bai, guc beti daucagu
Humore alaya,
Ecin eguingo degu
Berdin gure naya;
Comparatuaz aien
Suertearequin,
Contentu izango da
Nor berearequin.
Au da guertatcen dana
Munduco gaitzaquin,
Baldin neurtcen badira
Andiagoaquin.
Zu emen zaude orain
Cinguiran sarturic,
Eta ateratceco
Ez dezu quemenic.
Birauca asitcen da,
Baña, chito, chito
Iguelac deitcen dio,

Beguirozu ito.
Gaur zure ezbearra
Guztiz da andia ,
Baña ez da oraindic
Galdua guztia.
On da jaquin dezazun ,
Da paciencia
Gaitz andia eguiten
Duena chiquia :
Norbait etorrico da
Ortic , edo andic ,
Lagunduco dizuna
Irteten emendic.
Au aditu ondoren ,
Aren mesedea
Asi zan pisca bana
Artcen asnasea.
Egonzan gueldi gueldi
Dembora lucean ,
Gañeco zamac ceucan
Uraren gañean.
Indarrac citzaizquion
Piscaca etorri ,
Eta irteteco gai
Orra non zan jarri.
Cinguiratic campora
Atera zanean ,



Astoac esan zuen
Bere barrenean ;
Nic emen icusten det
Gaur nere burua ,
Aditu deralaco
Iguel consejua,
Bestela gira bira
Arras necaturic ,
Cinguiran guelditaco
Nintzan ni itoric.
Ez det nic , ez , aztuco
Da paciencia
Gaitz andia eguiten
Duena chiquia ;
Eta mundu onetan
Nai duenac bici ,
Cer nai guerta daquion
Ez du bear etsi.

*Astoa eta Chacurra.*

Asto bat zamatua
Alporch andiaquin
Cijoan feriara
Nagusiarequin.
Echeco artzanorac
Naiz bai , naiz ez deitu ,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Beti beti ondotic
Oi cion seguitu.
Ibilli ciranean
Iru bat legoa,
Gure nagusi orrec
Sentitcen du loa.
Guelditcen du astoa
Bide bazterrean,
An bazcatcen dabillen
Lo eguin artean.
Etciten da soroan,
Asten da zurrungaz,
Oroitu gabetanic
Astoaz, ez zamaz.
Bazebillen astoa
Soroan bazcatcen,
Eta chacurrac cion
Atcetic jarraitcen;
Baña nola astoa
Zan guztiz andia,
Atzeman ecin cion
Ortzaz janaria.
Orduan bi escuac
Gorontz alchaturic,
Asitcen zan ibiltcen,
Chutica jarriric,
Eta asto gaiztoac



Alcharic bizearra,
Eguiten cion beti
Burla eta farra,
Esaten ciolaric,
Au bai comedia!
Diruric itsuaren
Chacur dantzaria;
Eta onec esaten
Dio astoari,
Piscacho bat, maitea,
Berontz macurrari.
Onela dabiltzala
Poliqui jostatcen,
Leoi bat basotica
Zaie ateratcen.
Artzanora lasterca
Badijoa andic
Utzitcen duela an
Astoa bacarric;
Onec eguiten dio
Ari deadarra,
Arc berriz urrutitic
Eguiten du farra.
Asto gaisoa il zan,
Ez dago dudaric,
Escarmentu eder au
Guztioi utciric.

Besteac laguntcea
Guri nai badegu,
Guc ere besteai
Lagun beaiegu.

*Erliquidun Astoa.*

Asto bat zamatua
Guztiz erliquiaz
Cijoan iñon ecin
Cabiz fantasiaz,
Cergatic, zutenean
Gendeac icusten,
Belaunico ciraden
Bereala jartcen,
Eta bide citzaion
Buru artan jarri,
Eguiten ciotela
Belaunico ari:
Argatica ceraman
Guztiz goratua
Eta aicez betea
Gaisoac burua.
Onela icusiric,
Esan cion batec,
Agur oiec iretzat
Dirala uste dec?



Ez dec besteric falta,
Baicica astoa
Adoratcea ala
Nola Jaungoicoa!
Macurtu ezac ire
Aicezco burua,
Ez dituc agur oiec
Iretzat, caicua.
Ez aldaquic dijoala
Cucha bat gañean
Erliquiaz betea
Ire bizcarrean?
Cembat asto badira
Guizonen artean!
Arquitcen diranean
Empleo batean,
Sinistatcen oi dute
Gure cortesiac
Dituztela gugandic
Aiec mereciac,
Eta guero galtcean
Beren empleoac
Gueldítcen oi dirade
Len becin astoac.

Universidad de Deusto Biblioteca

Universidad de Deusto Biblioteca



*Leoya eta Astoa.*

Leoi andi bat zan bein
Goicetic atera,
Asto bat bere lagun
Arturic, eicera.
Artzai-chaol batean
Uzten du astoa,
Bide chidor batera
Bera badijoa.
Astoac bear zuen
Andic arranz eguin,
Leoiaganontz eiza
Guztia joan cedin;
Ain gogoz eguitendu
Astoac arrantza,
Non zuen leoiaren
Orruaren antza.
Abereac dabiltza
Batetic bestera,
Eta guero dijoaz
Bide chigorrera.
Astoac sartu cien
Alaco beldurra,
Non ez zuten icusten
Beguiaquin lurra.



Jaten ditu leoiac,
Utciric ezurrac,
Usaiez ase ditzan
Astoac sudurrac.
Ezurrac icustean,
Esan emen zuen,
Piscabat lencheago
Egon banintz emen,
Ez nuen ez utcico
Bacar bat biciric,
Ez cecen, ez catamotz,
Ez otso, ez artcic.
Aditu zuenean
Fanfarroi queria,
Leoiac eguin zuen
Algara andia.
Onen tripa betea
Gueldiṫu zan eicez,
Astoarena berriz
Len bezela aicez.
Farra eraguitendu
Guizon beldurtiac,
Esaten asten bada
Bere balentiac.

*Chimua lotsaturic.*

Egazti, eta arrai,
Abere guztiac,
Deitu omen cituen
Jupiter andiac,
Eta esan cioten
Far irriarequin,
Certaraco zatozten
Beazute jaquin.
Humeric ederrena
Dacarquidanari
Emango diot nic gaur
Lepande bat sari
Cillarrezco letretan
Esaten duena,
Guraso guztietan
Au dec abillena.
Badijoaz lasterca
Guztiac echera
Beren humeac artu
Eta ecartcera.
Biurtutcen dirade
Guztiac batetan
Ditustela humeac
Beren bizcarretan.

Universidad de Deusto Biblioteca



Chimuac eracusten
Du bere humea
Jaio berria eta
Gañera emea.
Jupiter asitcenda
Eztanda eguiten
Duenean alaco
Figura icusten.
Lertu nai dute ere
Abere guztiac
Farraz eta algaraz
Chiqui ta andiac.
Chimu gaisoa arras
Zaiote lotsatcen,
Eta da Tetuana
Igues andic joaten.
Nolatan atrebitu
Zan eramatera
Ume itsusi ura
Guztien aurrera?
Cergatica ez oida
Ume itsuric,
Bere gurasoentzat
Ederra ez danic.

Universidad de Deusto
Biblioteca



*Jupiter eta Astoa.*

Jupiterri, ceña dan
Jaungoico falsoa,
Quejatu citzaion bein
Biciro astoa.
Ez daquit, esan cion,
Nola dan astoric
Baratza zaia nausi
Izan nai duenic.
Egun oro narama
Plazára berequin
Aza, porru, tipula,
Eta lechuaquin.
Oiec saldu ondoren,
Biurtcen naiz nequez,
Arras zamaturica,
Echera, gorotzez.
Ecerere jan gabe
Nabill erdi illa,
Goitic bera sentitcen
Derala maquilla.
Astoaren negarraz
Jauna da cupitcen,
Eta tellaguin bati
An dio bialtcen.



Laster biurtcen zaio
Berriz Jupiterri,
Esanaz, tellaguiñac
Iltcen narabill ni.
Jan guchi ematendit,
Maquil golpe asco,
Nombait eraman beat,
Jauna cembait chasco!
Emen nator, berorri
Berriz escatcera,
Arren bidal nazala
Beste eche batera.
Larru zale zar bati
Bidaldutcen dio;
Astoari obequi
Ez dijoaquio.
Biurtu zan lasterca
Berriz quejarequin,
Eta jaunari cion
Onela itz eguin;
Jauna larru zaleac
Zamatcen nau erruz
Egun oro idi, bei,
Eta zaldi larruz.
Nere uste guztian
Dauca deseoa
Zamaz lerturic illa

Ni icustecoa:
Nola nere larrua
Dan asqui andia,
Nerequin eguin naidu
Segurqui zaguia.
Jaunac enzunic aren
Itz negargarriac,
Ichi ciozcan arras
Bere belarriac,
Esaten ciolaric,
Emendic aurrera
Ez datorrela iñor
Queja ematera,
Ez naiz iñorchoz ere
Berdin cupituco,
Beren patuarequin,
Dira guelditutuco
Asto, eta cherriac
Mandoac, zaldiac,
Guizon, eta abere
Diraden guztiac.
Iñorc ez du estimatcen
Bere suertea,
Ustez dala besteena
Ascotzaz obea.

Universidad de Deusto Biblioteca



*Medicu itzontzia eta eria.*

Eri bat guztiz gaizqui
Cegoan oiean,
Eta pulsua ongui
Artu ondorean,
Asten zaio esaten
Bere medicua;
Gaizqui iduritcen zat
Gaur zure pulsua;
Indarrica ez dauca,
Eta bitartean
Eun golpe daucatzi
Minutu batean.
Sendatu ciñalaco
Cerade zu poztu
Eta cerbait jan dezu,
Edo cera oztu.
Alferric ucatuco
Dirazu zuc niri,
Cerbait onelacoche
Pasa zazu zuri;
Bestela seguru naiz,
Ez daucat dudaric,
Ateraco cindudan
Nic gaitz onetatic.

Milla atera ditut
Nic nere demboran
Ez da bat bacarrica
Beste mundura joan.
Gauzarica onena
Izango da emen
Zure confesorea
Deitcea lembailen;
Ongui daquizu, iñorc
Esan gabetanic,
Ez dacarrela iñoiz
Gauza onac gaitcic.
Asarretutcen zaio
Onetan eria,
Eta esaten dio,
Berritsu andia,
Certan ari cerade
Aitzaquia billa,
Gaitz onetatic zuri
Il zaizquitzu milla.
Ez det jan, ez naiz oztu,
Ez det itz bat eguin,
Ez orain, eta ez len,
Ez bada zurequin.
Zure betico itza
Eta erausia
Jaquizu asco dala



Iltceco eria.
Zure aitzaquiaquin
Zoazquit emendic,
Ez det nic sendatceco
Medicu bearric.
Beti esan dirazu
Ecer ez derala,
Eta orain diozu
Gaizqui nagoala?
Badaquit nic cer dedan,
Ez nago ain gaizqui,
Erausi guchirequin
Jarrico naiz ongui.
Burua macurturic
Medicua joan zan,
Eta guero eria
Laster sendatu zan.
Itz guchi, begui ona,
Andia centzua,
Oiec eguiten dute
Ona medicua;
Baña oraindica da
Medicu obea
Osasunari ongui
Contu eguitea.

Universidad de Deusto Biblioteca

Universidad de Deusto Biblioteca



*Mando zamatuac.*

Bi mando cijoacen
Biac zamatuac,
Bata eta bestea
Elcarri lotuac.
Bata cijoan arras
Ederqui jantcia,
Cinta, cascábel, lumaz
Betea guztia:
Atcetica cincillic
Ceucan joaleac
Iduqui oi cituen
Airean caleac;
Bizcarrean ceraman
Urre zama andia,
Ongui botatcen cion
Gendeac beguia.
Bestea lotsaturic
Cijoan arlotez,
Zamatu zutelaco
Zacu garagarrez.
Ez ciran nerequico
Arrotceco galac
Bizcarrean cituen
Garagar costalac,



Irteten zaiozcate
Lapurrac bidean
Mando ederragana
Zuzen zucenean.
Osticoca asten da,
Eguiñaz irrintci,
Eta alderatutcen
Ez die nai utzi,
Beldurrez gueldi dedin
Jantci gabetanic
Bota zuen bezala
Amac sabeletic.
Nola cituzten chispac
Lapurrac berequin
Ill eta joan ciraden,
Diruac arturic
Uquitu ere gabe
Bestea utciric.
Au icusi ondoren
Bigarren mandoac
Esan omen cituen
Itz onelacoac;
Deaurru echeraño
Bijoa jantcia,
Laburtu bear badu
Onela bicia;
Naiago det eraman

Universidad de Deusto
Biblioteca



Ascoz garagarra,
Ecen ez urre zama
Edo naiz cillarra.

*Aceria eta matsac.*

Cincillica daudela
Ditu aceriac
Icusten mats mordoac
Eldu ori oriac;
Jartcen da beguiraca
Gaisoa goseac,
Badabiltzquio tripac
Jateco zaleac.
Saltoca asitcen da
Aleguin guztian,
Ordu bian badabill
Ecin irichian.
Icusi zuenean
Ez zala prochuric,
Matsai esan cien,
Beguia jasoric,
Zaute zaute, mordoac,
Zaute ostopean,
Ez cerate oraindic
Jarri sasoiean.
Cerbait nai, eta ecin



Badegu irichi,
Aceriac bezela
Bear degu utzi,
Zaude zaude, esanaz,
Zaude or berean,
Cergatica ez cera
Jarri sasoiean.

*Leoia eta Arratoia.*

Leoi baten atzapar
Andi zorrotcetan
Arratoi bat cegoan
Guztizco penetan,
Ez cergatic jancion
Gazta, chorizoa,
Bai ceren quentcen cion
Gabetaco loa,
Ordu guztietaco
Aren ibilliac
Uzten ez ciolaco
Ichitcen beguiac.
Negarrez asten zaio
Barcacio esque,
Uzten dio, esanaz,
Orra baoaque.
Ozta illabete bat

Universidad de Deusto Biblioteca

Oraindica joan zan,
Orra non leoi ori
Erori zan trampan.
Asitcen da eguiten
Alaco orruac,
Non icaratcen ditu
Ango inguruac.
Ezagutu ondoren
Orruan leoia,
Lasterca an dijoa
Gure arratoia.
Ortzaquin bereala
Du soca puscatcen,
Eta trampatic libre
Du leoia uzten.
Norc esan leoiari
Orduan bicia
Eman bear ciona
Zala arratoia!
Argatica munduan
Andi izan arren,
Ez daqui batec noren
Bear izango den.



*Otsoa eta Artzanora.*

Otso andi bat
Mendiac gora
Cijoala goiz batean,
Artzanor andi
Batequin topo
Eguin zuquean bidean,
Ceuden lecuan
Guelditu ciran
Biac elcar icustean.
Adisquidea
Dio otsoac,
Agur andi bat eguiñic,
Noiz ezquero zu
Onen goiz emen,
Zure ardiac utciric,
Ez cera, ez gaur,
Motibo gabe,
Apartatu artaldetic.
Artzanor orrec
Eranzun cion,
Nai nuque egon zurequin,
Aurrera nola
Bici beagun
Bioc dezagun itz eguin,

Zuc nai badezu,
Nere partetic
Izango nuque atseguin.
Icusi zuen
Otso andiac
Ceucala arc lepandea,
Artcen ciona
Lepo guztia,
Burni arantzez betea,
Eta ez zala
Orduan erraz
Arequin burrucatzea.
Lotsa zan baño
Beldur gueiago
Bere barrenen sentiric,
Gusto orichen,
Eranzun cion,
Gaur bertan izan nai det nic,
Eser gaitecen
Emenchen bertan
Izan ez dedin esparic.
Iduritcen zat,
Dio artzanorac,
Dala guretzat obea,
Aurrera bioc
Len degun baño
Obeto elcar artcea,



Batac besteari
Esanaz beti,
Agur nere adisquidea.
Norc izango du,
Esan zadazu,
Bici guztian gogoa,
Beti barrenen
Iduquitceco
Elcarrenzat gorrotoa,
Ta letaguiñaz
Puscatutceco
Bata besteari lepoa?
Ez dagoquio
Beste aldetic,
Esan bear da eguia,
Zu bezalaco
Indartsu bati
Perseguitcea ardia,
Cergatica da
Aberecho bat
Ona, eta izutia.
Zuretzat ascoz,
Dudaric gabe,
Dira contresta obeac
Leoiac, artzac,
Ta cata motzac,
Eta basoco urdeac;

Universidad de Deusto Biblioteca

Oiequinche zuc
Eguin beaituzu
Aurrera zure peleac.
Arrazoi dezu,
Dio otsoac,
Ez duenari indarric
Lotsa garri da
Gaitz eguitea,
Ta ez uztea biciric,
Ez det gueiago
Alacoaquin
Nic izan naico conturic.
Ematen dizut
Itza eguiaz
Ez naicela ni aurrera
Joango emendic
Zuen alderontz,
Zure ardiac jatera,
Baicica zuec
Bisitatuta,
Zuen ordenac artcera.
Orduan elcar
Despedituric,
Biurtu ciran echera,
Bata bestearen
Beldurric gabe
Soseguz asnas artcera,



Eta cuidado
Guztitic libre
Descansuz lo eguitera.
Egun batzuec
Igaro eta
Asi zan ardi contatcen,
Eta artzanora,
Icusirica
Ari cirala bacantcen,
Len becin berri
Asi izan zan
Egun eta gauac galtcen.
Gaitz eguiteco
Griña gaiztoa
Batec badacar jatorríz,
Gaztetandica
Ez badu uzten,
Gaitza eguingo du berriz,
Naiz bere itza
Emandezala
Milla, eta milla aldiz.

*Mendia aurguiten.*

Turmoiac ortic
Chimist emendic
Icusirica, gendea

Universidad de Deusto
Biblioteca



Egun batean
Bide cegoan
Arras beldurrez betea,
Eta eguiaz
Posible ez zan
Soseguric izatea.
Dudaric gabe,
Esaten zuten,
Juicioco eguna
Da aditcera
Tormenta onec
Guri ematen diguna,
Bear bezela
Prestatutceco
Eguin zagun aldeguna.
Onetan norbait
Badator, eta
Orra non duen esaten,
Chit urrutian
Mendi andi bat
Omen dagoala aurguiten,
Onetaraco
Deadar aiec
Dituela arc eguiten.
Icara utci
Aldebat eta
Gendea dago ichilic,



Cer gauza andic
Bear ote duen
Atera aren barrendic,
Cergatic gauza
Chiquiric ecin
Diteque irten menditic.
Badator norbait
Berri andia
Gendeari ematera,
Dala mendiaren
Sabeletica
Sagu chiqui bat atera,
Au aditu ta
Gende guztia
Juan zan algaraz echera.
Onela guerta
Oi da cristabac
Maiz urrutico gauzaquin,
Argatica guc
Bici beagu
Gure errepain zarraquin,
Gueldi ez gaitecen
Asco bezela
Guero chalma andi batequin.
Urrutitica
Eguiña gatic
Inchaurrac soñu andiac,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Alderatuta
Izan oi dira
Ascotan inchaur chiquiac,
Eguia andi au
Eracutcitcen
Digu esperienciac.

*Aizcora eta quirtena.*

Egurguille bat
Sort eguitera
Joan zan basoan barrena,
Eta bidean
Galdu citzaion
Aizcoratica quirtena.
Sort eguiteco
Beste berribat
Eguin nairic aizcorari,
Gaya escatcen
Asi citzaien
An zan arbol bacoitzari.
Iñorc ez cion
Gairic eman nai,
Eta arteac bacarric
Adar mecho bat
Esqueiñi cion,
Gaiso artzaz cupituric,



Quirten berria
Eguin ondoren,
Sartcen dio aizcorari;
Eta golpeca
Asiten zaio
Arte ariche berari.
Au icusi ta,
Asten dirade
Zumarrac, eta lizarrac,
Arte onaren
Contra eguiten
Oju eta deadarrac.
Asto andia,
Esaten die,
Ez alequien oraindic,
Egur guilleac
Bici dirala
Guc galtcen degun bicitic?
Orra cer esquer
Ematen dian,
Orain asi dec igandic,
Sarri ez gueatcic
Bat bacarrica
Basoan utcico zutic.
Iri bacarric
Eguin bacian
Tontotzar orri caltea,

Universidad de Deusto Biblioteca



Ecer ez uen,
Baña guretzat
Ez dec izango obea.
Bere etsaiari
Eman badio
Noizbait norbaitec escua,
Len edo guero
Icusico du
Galduric bere burua.

*Bada Jauncoico bat.*

Cerua, eta lurra,
Eta ichasoa
Dagozquigu esaten
Badala Jaincoa;
Iñorc seculan balu
Onetan dudaric,
Ez luque bereburu
Esatea baicic,
Beti argui emanaz
Len becin andia
Egun oro icusten
Degu eguzquia;
Urteac joanagatic
Millaca pasatcen,
Len besalache digu



Arguia ematen.
Norc eguin ote zuen,
¡Cer arrigarria!
Beñere acabatcen
Ez zaigun arguia?
Norc igaroagatic
Egunac, urteac,
Gordearazten diozca
Lenengo bideac?
Baldin irteten balitz
Bide aietatic,
Ez litzaque guelditcen
Guizon bat biciric;
Piscabat joaten balitz
Arontz eguzquia,
Laster lezaque otzac
Il mundu guztia,
Eta onontz baluque
Pauso bat ematen,
Berealà beruac
Guinduque itotcen;
Ondarrac ez baleza
Gueldi itsasoa,
Orobat litzateque
Mundua itoa;
Baña Jaungoicoaren
Ordenac arturic,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Beñere igarotcen
Ez da ondarretic.
Baldin noizbait norbaitec
Naibaluque jaquin
Lembicico guizona
Ceñec zuen eguin,
Bijoa aditcera
Jaquintsun andiac,
Eta icusico du
Cer astaqueriac
Aien mingañetatic
Dituen aditcen,
Eta nola len becin
Illun dan guelditcen.
Galde bizaie nola
Guc mundu guztia
Icusteco asco degun
Beguico ninia?
Nola odoiac gora
Joaten dan artea
Dan posible ain aci
Chiquitic sortcea?
Nola irten bezala
Chitoa arraultzetic,
Ez duen utseguiten
Mococa aleric?
Nola enadac eguin



Oi duten cabiac
Arriturica uzten
Dituzten guztiac?
Cer eranzungo dute
Guizon jaquintsuac
Gauz oietan badira
Gu becin itsuac?
Atozquit onontz orain
Zu guizon zoroa,
Ucatcera oraindic
Badala Jaincoa.
Eriotceco orduan
Aditcen badizut,
Eguia diozula
Sinistuco dizut;
Orduan nere perill
Ao orretatic
Jaincoaren icena
Adituco det nic
Osasuna danean,
Baiere indarra,
Guizonac eguin oidu
Jaungoicoaz farra;
Baña galtcen baditu
Bat eta bestea,
Orduan aitortcen du
Arc bere jabea.

Universidad de Deusto Biblioteca



Ez da mundu onetan
Iñon nacioric
Jaungoico bat badala
Aitor ez duenic ;
Azquenean mendico
Guizon basatiac
Egui au sinistatcen
Oi dute guztiac.
Bada bai Jaungoico bat ,
Danic justuena ,
Cerua eta lurra
Eguin dituena ;
Zuc eguin cenduen bai
Nere Jaungoicoa
Lembicico guizona
Zure antcecoa :
Zuc eguiñac dirade
Eguzqui , illarguia ,
Izar ederrac , eta
Ichaso andia ;
Oiec icusten dira
Gauaz ta egunaz
Alabantzac eguiten
Zure ontasunaz ,
Zure jaquinduriaz ,
Ta anditasunaz.



*Gauzaric chiquienetan da aundiena Jaungoicoa.*

Norc esan gure
Jaungoico onac
Gauzaric chiquienetan
Poderioric
Andienaren
Muestrac dizquigula eman ,
Au icusteco
Historia bat
On da nic contadezadan.
Inguma zuri
Itsusi batec
Oi ditu udaberrian
Millaca arraultzac
Or , emen , uzten
Masust arbolen orrian ,
Au jandezaten
Andic irtenic
Arrrac aleguin guztian.
Ala guertatcen
Da , cergatica
Ozta dirade irteten ,
Berealache
Asten dirade

Gogotic ostoa jaten ,
Illabetean
Guchienean
Ez dira jaten gueldítzen.
Ostoz aseaz ,
Eguiten dira
Beatza becin lodiac,
Eta orduan
Aiec aotic
Botatcen duten lirdiac,
Berac jiraca
Darabiltela ,
Uzten ditu estaliac.
Badirudite
Ezcur aleac
Orduan oso osoac ,
Aur jostatceco
Boltsa batean
Norbaitec sartutacoac ,
Norc sinistatu
Beardutela
Piztu guero onelacoac.
Uda berria
Datorrenean
Asten dirade irteten ,
Chulo bat boltsan
Eguin ondoren ,



Eta egoac zabaltcen ,
Cergatic , boltsan
Dauden artean ,
Inguma dira biurtcen.
Guero arraultzac
Amac bezala
Arbol ostoan eguiñic,
Berealache
Oienchen guisa
Guelditcen dirade illic,
Gure bicia
Laburra dala
Ez degu cer quejaturic.
Aien lirdiac ,
Ceñac dirudi
Armiarmaren sarea ,
Boltsa guisara
Dagoalaco
Du icena capulea :
Ciricuaren
Icena artceco
Falta zaio iruitea.
Ciricu au da
Zuria , edo
Arto bizar colorea ,
Guero bac oitzac
Ematen dio

Universidad de Deusto Biblioteca

Nai baldin badu obea,
Purpurarena
Jantci beauena
Baldin bada Erreguea.
Colore gorri
Purpurarena
Mascor baten barrenean
Mascorra jaten
Gosez asi ta
Chacur batec ondarrean
Arquiarazo
Zuen, muturra
Tintez busti zuenean.
Orra erregueen
Soñeco ederrac
Inguma batzuen lana
Eta colore
Gain gañecoa
Mascorcho batec emana;
Au icusi ta
Cein da guizona
Aurrera arrotuco dana?
Oraindic balitz
Norbait munduan
Nai ez duena sinistu,
Beardegula
Dudaric gabe



Demboraz guztioc piztu,
Sinistamentu
Milagrozco au
Ingumac dio erraztu.

*Cutuna.*

Nere adisquidea
Beardezu jaquin
Guertatutcen oi dana
Munduan gurequin;
Iñor ez da contentu
Bere suerteaz,
Embidia gaiztoa
Du batac besteaz.
Necazariac dio,
Zorionecoac
Dira mayorazcoac
Ta indianoac.
Oiec diote berriz,
Pocezco bicia
Munduan daramana
Da necazaria.
Medicuac nai luque
Izan letradua,
Onec mercataria,
Edo medicua,

Universidad de Deusto
Biblioteca



Ezconduac ezcongai ,
Ezcongaiac senar ,
Ezagutcen ditut nic
Onelaco amar.
Norc ote dauca bada
Arrazoi onetan ?
Ez batac ez besteac
Diot nic benetan ;
Arrazoia da beti
Arquitcen erdian ,
Ez gueieguian eta
Ez guchieguian.
Baldin gueiegui badu
Batec ondasuna ,
Gueienetan faltatcen
Zaio osasuna ,
Eta , nola au gabe
Ez dan zori onic,
Ozta arquitcen oi da
Content aberatsic.
Pobreac oi du berriz
Osasun andia ,
Apetitu azcarra ,
Janari chiquia ;
Argatic bicitcen da
Beti embidiaz
Beti gaizqui itceguiten



Aberatsguztiaz ,
Eta fortunaz bera
Aberasten bada ,
Len baño gaizquiago
Benturaz bici da.
Beguira zuc daquizun
Guizon lodi ari ,
Nic ezagutu nuen
Ura necazari ,
Goicetic arratsera
Beti aitzurrean ,
Osasun onarequin
Umore onean ;
Aberastu zan guztiz ,
Ameriquetatic ,
Baña gueroztic ez du
Osasuna onic;
Janac , eta edanac
Lanic ez eguiñac
Emanac ditu orrec
Gaur dituen miñac ;
Eta nola bait daucan
Odolac josia ,
Ill oro guchienaz
Bear du sangria ;
Amar legua oñez
Eguiteco arc len

Universidad de Deusto
Biblioteca



Beste aimbeste ordu
Gueiegui cituen ;
Eta ecin liteque
Gaurco egunean
Ordu betean ere
Ibilli bidean.
Certaraco dirade
Gure ondasunac
Falta bear badigu
Eguin osasunac?
Ez da , ez da munduan
Bear diru asco
Pocez eta contentuz
Bici izateco ,
Eta umore ona
Daucanac naicoa ,
Non nai dauca bicitza
Zorionecoa.
Jaincoac ala nairic
Dirade chit guchi
Ecin ditezqueenac
Lan eguin ta bici;
Gañeracoac dira
Alfertzar utciac
Lanica eguin gabe
Ongui bici naiac.
Erleaquin Jaincoac



Digu eracutsi
Nola bici munduan
Nai bada icasi :
Dirade languilleac
Dira contuzcoac ,
Ez digute esango ,
*Guero guerocoac.*
Pocic jango luteque
Gaisoac guztia
Ain neque andiz eguin
Oi duten eztia.
Baña oroitcen dira
Badala negua ,
Orduco beautela
Eguin gordaidua.
Ala , ez dute jaten
Daucaten eztitic
Egun oro gaisoac
Piscacho bat baicic,
Eta negu gogorra
Etortcen danean ,
Jan ta lo anchen daude
Descansuz eultcean.
Mantentcen dituenac
Aireco choriac ,
Itsasoco arraiac ,
Lurreco pistiac ,

Universidad de Deusto Biblioteca

Ez du iltcen utcico
Goseac guizona ,
Contuzcoa danean
Ta languille ona.
Izan ezquero jana ,
Edana , jantcia ,
Gañeraco guztia
Da eraqueria.
Empleo eta onrac
Aberastasunac
Dirade banidade
Ta arrotasunac.
Norc duen zori ona
Jaquin nai badegu
Placetara joatea
Besteric ez degu.
Lana erruz eguiten
Duena astean
An dabill dantzan lertcen
Contentuz jaiean.
Ez da iñon festaric ,
Ez da mercaturic ,
Gogo badu icusi
Ez dezaqueenic.
Nai badu ostatua ,
Nai badu cafea ,
Asco du lembicico



Tabernan sartcea ;
Mai ona topatcen du
Gogo onarequin ,
Eta ez zaio falta
Norequin itzeguin.
Asco du pasatceco
Arc egun guztia
Chopin bat ardo eta
Lau cuartoco oguia.
Ez du coche bearric ,
Ez ere zaldiric ,
Maquilla bat asco du
Baldin bada loiric ,
Or salto , emen salto
Joateco airean ,
Oñac ciquindu gabe
Batere bidean.
Nequeac emanica
Jateco gogoa ,
Chit ona arquitcen du
Baba , ta taloa.
Irteteco egun oro
Erraz gorputcetic ,
Onelacoac ez du
Ayuda bearric.
Lanari utci , eta
Echean sartcean ,

Pozten da emaztea
Deica aditcean,
Umeai esanaz,
Atozte echera,
Aita orainchen dator,
Eta bazcaltcera.
Errezatu ondoren,
Asten dira jaten
Guztia apetituac
Ona du arquitcen.
Eguiazqui dirudi
Aiec icustean,
Aingueruac daudela
Bazcaltcen lurrean.
An arquitcen dirade
Poza, ta paquea,
Zori onecoa da
Aien izatea.
Ongui balequiteque
Andien bicia,
Segur naiz ez liraque
Aien embidia.
Erran comunac dira
Maisuric onenac
Jarraitu bitza ongui
Bici nai duenac;
Oiec esaten dute,

Universidad de Deusto Biblioteca



On da jaquitea,
Dirudien guztia
Ez dala urrea.
Campotic eder, eta
Barrendic itsusi
Aberatsen echeac
Maiz dirá icusi;
Ascotan arpeguia
Egon arren farrez,
Biotza arquitcen da
Barrenen negarrez.
Gende aberats asco
Icusten dituc nic,
Echea betea, ta
Ecer ecin janic,
Purgaquin, ayudaquin,
Izaiac atcean,
Urtearen erdian
Etciñic oiean.
Janari ez badie
Ifintcen neurria,
Biciari quendutcen
Diote erdia.
Aberats izatea
Certaco ote da,
Gogoa izan eta
Jan bear ez bada?

Zaguia echean, ta
Eperra espensan,
Eta ecin au jan eta
Ecin andic edan!
Festetara joateco
Bear dute jaquin,
Zaldiac ongui dauden,
Edo alduten miñ;
Cer dembora dagoan,
Dacarren euria,
Edo bortitzeguia
Aldan eguzquia.
Echera ta ascotan
Anchen daude muchin
Estula dutelaco,
Edo buruan miñ.
Jaungoicoac mundua
Onela du eguin
Gaitza nai du dabillen
Beti onarequin:
Au onela izanic
Dudarican gabe,
Nai luque batec izan
Ona gaitcic gabe,
Baña guizona dago
Burutic jaucia,
Nai badio irabaci



Jaunari aucia.
Cembat aberats ez da
Ibiltcen goicetic
Dembora no la pasa
Ecin asmaturic?
Eta cembatec ez du
Galtcen osasuna,
Ez jaquiñica nola
Igaro eguna,
Janean, edanean,
Joco, picardian,
Goiz, eta arratzalde,
Eta gauerdian?
Emendican oi datoz
Ondoren samiñac,
Gota, urdallecoa,
Eta beste miñac.
Ezcontza bear badu
Aberatsac eguin,
Nobiac cembat duen
Lenaz beau jaquin,
Guero galdetuco du
Ote dan ederra,
Ez azcarra ote dan,
Edo dan alferra:
Ezcontza oietatic
Ez naiz arritcen ni

Universidad de Deusto
Biblioteca



Onac ez irtetea
Millatatican bi;
Emendica queja ta
Andic oztasuna,
Goicetic arratsera
Dijoa eguna.
Ecarri baldin badu
Dotea andia,
Dotearen neurrian
Beardu jantcia;
Dotea jaten da ta
Jancia guelditcen,
Comediac orduan
Dirade izaten.
Ongui jan
Ongui edan
Bear aurrac aci,
Semper orduan oi du
Bacoitzac icusi,
Oiturac ecin utci
Cerequin izan ez,
Cembat ez dira bici
Gaisoac negarrez!
Esan zadazu orain,
Zuc adisquidea,
Cer da mundu onetan
Suerte obea?



Aberastasunaquin
Bicitza tristea,
Edo ondasun gabe
Bici alegria?

Universidad de Deusto
Biblioteca

# ARTZAI COPLAC (1).

MELIBEO.

Titiro, zu or zaude,
Faza ederrean,
Luce luce etciñic
Pago itzalean;
Chirola jo, ta canta,
Or zaude zalanzan,
Amarilis maitea
Noiz etorrico dan;
Gu berriz emen goaz
Erritic iguesi,
Echea eta lurrac
An ditugu utci.
Gu negarrez gabiltza,
Zuc, orche jarriric,
Ez dezu Amarilis
Alabatu baicic.

TITIRO.

Melibeo, bici naiz
Descansu onetan,
Ceren bici modu au
Jaincoac dit eman;
Oni zor diot emen
Chirola jotcea,
Eta nere idiac
Landan bazcatcea.
Bein baño gueiagotan
Onen aldareac
Icusico dituzte
Nere arcumeac. (2)

(1) Egloga primera de Virgilio.

**ARGUMENTO.**

El emperador Augusto repartiò tierras entre sus soldados, despojando de ellas à sus dueños. Virgilio obtuvo la devolucion de las suyas, y segun algunos, es el que en esta egloga habla de boca de Titiro, elogiando al joven emperador, à quien llama su Dios, y ofrece sacrificios en sus altares con los recentales de su rebaño. Dice que fuè esclavo, y que, habiendo ido á Roma, siendo ya viejo, obtuvo su libertad. Melibeo, que habla de boca de los despojados, llama dichoso à Titiro, y llora su desgracia, como quien va sin esperanza de volver à ver su patria y su hogar.

(2) Los corderos que se han de inmolar en ios altares.

Universidad de Deusto
Biblioteca



MELIBEO.

Ez dizut nic, Titiro
Embidiric artcen,
Baña esango dizut
Cerc nauen arritcen;
Da zu or icusteac
Descansu orretan
Penac diradenean
Baster guztietan.
Ona ni emen heriz
Ecin ibilliric,
Nola noan auntz oiec
Aurrean arturic;
Icusten dan bezala
Oietatican bat
Bultzaca ta bultzaca
Doi doia daramat;
Gaisorrec or su arri
Gogorren gañean
Bi hume eguin dizquit
Urritcen artean.
Badaquizu iraungo
Badu artaldeac,
Esperantza guztia
Dirala humeac.
Zori gaizto au, narra
Izan ez banintzan
Aditcera emandit
Ceruac ascotan,
Ain laster artelaza
Chimistaquin joaz,
Ain laster beltzurrari
Cantaarazoaz.
Baña orain, Titiro,
Zorionecoa,
Esan zadazu cein dan
Zure Jaungoicoa.

TITIRO.

Bildotsac eramaten
Ditugun erria (1)
Usten nuen nar onec
Zala ain andia,
Non izan citequean
Zanic andiena,
Nola dan gaur Erroma
Deitcen diotena;
Baña icusi nuen,
Au aren aldean
Dala ardia dana
Bildochen artean,
Edo chacurcumeac
Jaio diranean,
Ama oidan bezala
Oien saietsean.

MELIBEO.

Baña galde beaizut,

(1) La ciudad de Mantua.



Titiro, esazu,
Cerc Erroma alderontz
Eraman zaitu zu?

TITIRO.

Ni Erroma alderontz,
Arturic maquilla,
Joan ninzan, Melibeo,
Libertade billa;
Baña libertadea
Nueneco izan,
Bizar-zuria, eta
Buru-solla nintzan.
Amarilis maitea
Nuen emaztea,
Bada orduco galdu
Nuen Galatea;
Eta aitortu beat,
Amarilis gabe,
Ez nintzala izango
Gaur ni nere jabe;
Cergatic Galatea
Nuen bitartean,
Beñere ez nuen nic
Ardit bat echean:
Eramanagatica
Errira guria,
Gazta frescoa, eta
Arcume lodia,
Beti biurtcen nintzan,
Bear dezu jaquin,
Gauza asco saldu eta
Bi escu utsaquin.

MELIBEO.

Arritua, Amarilis,
Nengoan ni, ceren
Beti Jaunari deiça
Tristeturic ceunden;
Arritua norentzat
Sagarrac elduric
Ote ceuden arbolan
Bildu gabetanic.
Orain conturatcen naiz
Cergatica ceuden,
Cergatica Titiro
Emen ez cegoen.
Titiro zuri deica
Ceuden iturriac,
Zuri deica piñuac,
Eta elorriac.

TITIRO.

Cer nai cenduen bada
Emen eguin nezan,
Nere libertadea
Ecin nuen izan.
Ez nuen nic icusten
Emen Jaungoicoric
Deseatcen nuena
Emango ciranic.
Erroman, Melibeo,
Nuen nic arquitu

Universidad de Deusto Biblioteca



Galai gaztebat, ceñac
Ninduen aditu.
Oriche oi diot nic
Escaintcen illean
Arcumebat guicena
Bere aldarean;
Onechec esan ciran
Lembician niri,
Eguin nion orduan
Otoitza berari,
Zoaz len bezalache
Idi uztartcera,
Eta zure cecenac
Landan bazcatcera.

MELIBEO.

Orrela zartce ona,
Titiro, daucazu,
Guelditu bacerade
Lur oien jabe zu.
Arria eta iya
Ugari izanic,
Larre ederric asco
Badezu oraindic.
Ez ditu herituco
Belar berrituac
Artaldean dituzun
Ardi azunduac.
Ez ere cutsatuco
Campoco ardiac
Ascotan iduqui oi
Duten ezcabiac,
Bein eta berriz cera

Zorionecoa,
Emen artuco dezu
Zuc aice frescoa
Iturri ta erreca
Oienchen artean,
Luce luce etciñic
Pago itzalean;
Auzoan zariquetan
Dabiltzan erleac
Goizetic arratsera
Chupatcen loreac
Ecarrico dizute
Burrumbaz gogoa,
Titiro, eguiteco,
Nai badezu, loa,
Adituaz cantari,
Lo jarri artean,
Unaia arcaitcetan
Ostoa biltcean,
Eta usoac berriz
Urrunga eguiñez
Eta usa tortolac
Pagoan negarrez.

TITIRO.

Lenago icusico
Dirade oriñac
Bazcatcen dabilzala
Airean ariñac,
Eta lenago berriz
Igueri lurrean
Arraiac, itsasoa
Utzi ondorean,



Icusico dan baño
Nere memoria
Astutcen galai gazte
Aren arpeguia.

MELIBEO.

Bitartean, Titiro,
Gu emenchen goaz,
Nora ez daquigula,
Gure auntzac joaz.
Batzuec artu degu
Egoa aldera,
Eta beste batzuec
Berriz ifarrera,
Esperantzaric gabe
Secula guztian
Lembezala arquitceco
Gu gueren errian,
Abereac bazcatcen,
Itaitcen garia,
Erriraco eguiten
Gazta ta guria.
Gaur soldadu gogorrac,
Cupidaric gabe,
Dira gure chaola,
Eta landen jabe.
Orra cer diran guerrac
Elcarren artean,
Orra cer dan guizona
Paquea galtcean.

Zoaz orain Titiro
Gari ereitera,
Sagarrac chertatu, ta
Matsac podatcera.
Guacen guacen aurrera,
Auntz erdi berriac,
Len zori onecoac,
Gaur cupigarriac,
Ez zaituztet gueiago
Errico aitcetan
Saltoca icusico
Nere egunetan,
Ez naiz berriz egongo
Zuen zai cantatcen,
Icusiaz maiteoc
Charpola bazcatcen.

TITIRO.

Melibeo nerequin
Gaurco arratsean
Descantsatuco cera
Belarren gañean,
Baditut sagar umo,
Gaztaña gozoac:
Gazta, eta guria
Gaur eguindacoac;
Beguira chaoletan
Aguertcen dan quea; (1)
Mendiac eguiten du
Itzala lucea.

(1) Quiere decir que la noche está encima, cuando humean las chimeneas, y se prolonga la sombra de los montes.

Universidad de Deusto
Biblioteca

# COPLARIEN TEMA

## PALEMON JUEZ DUTELA.

MENALCA.

Dametas, oriche bai
Dala artaldea!
Melibeo edo nor
Dic orrec jabea?

DAMETAS.

Ez dic ez Melibeo,
Baicican Egonec
Eman cidac zaitzeco
Chit contuz neronec.

MENALCA.

Escu onetan zaude
Guztiz artaldea,
Chit buru onecoa
Da zure jabea;
Neeraren ondotic
Or dabil gautegun,
Embidia duela
Ongui da ezagun;
Beldur da ez datorren
Onera Neera,
Nerequin itzalean
Emen jostatzera;
Bitartean, Dametas,
Ardi errapeac
Ez dec perill lerditzan
Gueieguiz esneac;
Beti jazten ari aiz,
Eta arcumeac
Ezur uts biurturic
Ceauzcac goseac.

DAMETAS.

Poliquicho, Menalca,
Beazu itzeguin,
Badaquigu guc cer dan
Guertatu zurequin:
Badaquigu nola zu
Lengo egunean
Aquerrac bazterrerontz
Or beguiratzean,
Eta aitzpean Ninſac
Ceudenean berriz
Algaraca eztanda
Eguin nairic irriz...

Universidad de Deusto
Biblioteca



MENALCA.

Ori zan nic Miconen
Matsac podatcean,
Eta aren sagarren
Adarrac moiztean.

DAMETAS.

Edo onaco emen
Pago itzalean
Dafinden tiruztai ta
Chirola austean;
Norbaitec gazte oni
Ciozcalaco eman,
Y lertzeco zorian
Menalca egoan,
Eta gaiztaqueri au
Ez bauen eguin,
Ilco inzan segurqui
Aimbeste uen miñ.

MENALCA.

Cer ez dute eguingo
Gurequin nausiac,
Ausartatzen badira
Onetara seiac?
Neronec icusi aut
Damonen auntz bat nic
Ebasten abillela
Lazoa jarriric;
Bitartean Lisica,
Lertceco zorian,
Zangaca ariuen
Aleguin guztian;
Eta ni berriz emen
Nere aldetica
Ojuca neagoan
Titirori deica,
*Atoz atoz, Titiro,*
*Ara non dijoan,*
Eta i quicorica
Gorderic egoan,
Ezpata belar aien
Atzean jarriric,
Lotsa baño beldurra
Gueiago izanic.

DAMETAS.

Auntza nerea uen,
Jaquin beardec ic,
Cantan eta chirolan
Damon garaituric:
Aitortzen dic Damonec
Au eguia dala,
Baña esan dic ecin
Emango dirala.

MENALCA.

Cantan eta chirolan
Ic Damon garaitu?
Ic chirolic deanic



Ez diat aditu.
Gari lasto batequin
Ez intzan ibiltzen
Marrangaz gendeari
Igues eraguiten?

DAMETAS.

Nai dec bada jocatu
Bi gauza oietan?
Ifiñico diac nic
Bei gazte bat teman,
Bi checor ceaucatzic
Bere errapean,
Eta bi bider jazten
Diat egunean:
Esan beardec orain
Jaquin dezadan nic,
Cer ifiñico dean
Ic ire aldetic.

MENALCA.

Aita ta oazama
Dizquiat echean,
Ez diat nic escuric
Gure artaldean;
Bi bider guchienaz
Oi dizquitec biac
Contatzen egunean
Auntz, eta ardiac.
Baña aicen ezqueroz
Burutic maingutu
Artaraño, non nai dec
Nerequin jocatu,
Erratillu eder bat
Echean badiat,
Eta nere aldetic
Ifiñico diat.
Aitortuco dec seurqui,
Ura icustean,
Asco balio duela
Beiaren aldean;
Alcimedon andiac
Eguindacoa dec,
Beste alacorica
Ic icusi ez dec.
Ayen luce eder bat
Mats-mordo beltzaquin
Ceucac inguruan
Untzen ostoaquin.
Erdi erdian berriz
Cononen ichura,
Eta ez nac oroitzen
Nor dan beste urà...
Norc zuen lurra neurzen
Lenen eracutsi?
Norc garia noiz ereiñ?
Eta noiz ebaqui?
Ez diat oraindica
Aora eraman,
Mocanesan bilduric
Ceaucadat cuchan.

Universidad de Deusto Biblioteca



DAMETAS.

Nic ere badizquiat
Béste bi chit fiñac,
Alcimedon orrechec
Berorrec eguiñac
Molorrica ederrac
Beren quirtenetan
Ceaucazquitec biac
Asco chibistetan.
An ceagoc Orfeo
Erdian jarriric,
Jarraitcen diotela
Arbolac atzetic.
Ez dizquiat oraindic
Escuetan artu,
Bein nituen ezqueroz
Nere cuchan sartu.
Baña icusten bada
Nere bei gaztea,
Ez dic ecerc balio
Aotan artcea

MENALCA.

Ez dec igues eguingo,
Joango nac nora nai,
Cergatic iretzat ni
Non nai beti nac gai.
Adizac... baña cein da
Onontz datorrena?
Palemon: oriche dec
Juezic onena.
Eracutsico diat
Nic orain nolatan
Guizon prestu artean
Itzeguin bear dan.

DAMETAS.

Asi ari nai badec,
Ez nac icaratcen,
Nic ez diat zancoric
Atzera botatzen.
Enzun zazu Palemon
Zuc arretarequin,
Ez degu eguin tema
Gauza guchirequin.

PALEMON.

Asi zaitezte bada
Enzun dezadan nic,
Soro eder onetan
Biac eseriric.
Orain belar berria
Asi da jaiotzen,
Oran daude arbolac
Lorea botatcen,
Orain ostoz betetzen
Dirade mendiac,
Orain guztia pisten
Du uda berriac.
Asi zaitez Dametas
Cantatcen aurrena,





Guero Menalcac beau
Cantatu urrena.
Coplarien amparo
Diran Musandreac
Pozten ditu aldizca
Coplac botatzeac.

DAMETAS.

Adítu Musandreac,
Jaungoicoagandic
Nere coplac botatcen
Asi beardet nic.
Diot bada arquitzen
Da mundu onetan
Gure Jaungoico ona
Lecu guztietan;
Ematen oi du lurrac
Arc naita frutua,
Eta arc berac dauca
Copl-oien contua.

MENALCA.

Ni ere maitatzen nau
Nere Jaungoicoac,
Baditut erregalo
Arc eguindacoac,
Moredin ederra, ta
Erramu berdea,
Eciñ arqui diteque
Emaitz bat obea.

DAMETAS.

Galateac, dalaco
Nescacha ariña,
Sagar bat tira eta
Emanciran miña;
Zariquetara igues
Laster joanagatic:
Nai zuen icus nezan
Gorde baño len nic.

MENALCA.

Nic Amintas ederra
Det asco maitatzen,
Baña orrelacoric
Ez oi dit eguiten:
Ain maiz etortzezat non
Chacurrac oi duten
Delia beciñ ongui
Ura ezagutzen.

DAMETAS.

Aguiri da emendic
Araco an aitza,
Nere maitearentzat
An daucat emaitza.
Joan dan egun batean
An icusi det nic
Uso bat arraultzaquin,
Cabia eguiñic.

Universidad de Deusto
Biblioteca



MENALCA.

Nic bialdu diozcat
Nere maiteari,
Basoan topaturic,
Sagar umocho bi,
Bata eta bestea
Ciran ain oriac,
Non urrezco sagarrac
Ciruditen biac.
Beste bi an daucatzit
Arbolan cincillic
Bialtzeco berari,
Ongui umoturic.

DAMETAS.

Cer itz eder ez dizquit
Esan Galateac!
Ah! eraman balitza
Cerura aiceac!

MENALCA.

Cer zait niri Amintas
Zuc nai izatea,
Mendian bazabiltza
Utziric sarea;
Eta zu basurdetan
Zabiltzan artean,
Bacarric banaucazu
Sareen aldean.

DAMETAS.

Nere egunac dira
Egun, Galatea,
Naico nuque Filída
Niri bialtzea;
Ofrenda egunean
Berriz, Galatea,
Naico nuque zerori
Onontz etortzea.

MENALCA.

Iñorc baño gueiago
Maite det Filida,
Nigatica negarrez
Joan zana orida:
Adio nere ederra
Esan ciranean,
Escua estuturic
Emendic joatean.

DAMETAS.

Cer gauza tristea dan
Otsoa arteguian,
Gariac itaitzean
Ujola celaian,
Arbola gazteentzat
Egoa aicea,
Neretzat Amarilis
Muchin egotea.



MENALCA.

Arratsean erortzen
Dan euri lambroa
Lur ereiñentzat oi da
Onenetacoa;
Titia utzi duten
Auntzentzat da berriz
Caudanaren musquilla
Bazcá ona anitz;
Zarica dute maite
Azundu ta ardiac,
Eta nic maite ditut
Amintasen deiac.

DAMETAS.

Nere coplac gustatzen
Zaizca Polioni,
Guicentzen daucat chalbat
Escainzteco oni.

MENALCA.

Polion bera ere
Da chit coplaria,
Onentzat bazcatzen det
Cecembat lodia;
Jotzera saiatzen da
Jasoaz adarra,
Eta maiz zabalduaz
Oñaquin ondarra.

DAMETAS.

Polion, zu maitatzen
Zaituen guztia
Bijoa eguitera
Non nai zure naia,
Emandizazutela
Arcaitzac eztia,
Eta basoco larrac
Berriz madaria.

MENALCA.

Enzuteco ire antza
Duten coplariac,
Beaizquic batec izan
Asto belarriac;
Uztardizala onec
Aceri oquerrac,
Eta jatzi ditzala
Nai badu aquerrac.

DAMETAS.

Marrubi eta lore
Biltzalle gaztea,
Contu, belar azpian
Ordago suguea:
Zoaz ortic iguesi
Lasterca gaisoa,
Sar ezdizazun arren
Oñetic mistoa.

Universidad de Deusto Biblioteca



MENALCA.

Ez joan ardiac arren
Ibai basterrera ,
Erori ez zaitezten
Andica urera ;
Beguira non datorren
Lasterca aria ,
Burutic oñetara
Osoro bustia.

DAMETAS.

Ardi oiec , Titiro ,
Ibai basterretic
Atzeraazo itzac
Doacabetanic ,
Nic neronec errecan
Edo iturrian ,
Garbituco dizquiat
Nai dedan guztian.

MENALCA.

Ecarri itzatzute ,
Mutillac , echera
Ardi oiec larretic
Laster itzalera ;
Errapeac baditu
Beroac idortzen ,
Alferrica arico
Gaituc aiec jazten.

DAMETAS.

Orren argala dabill
Cecena larrean
Triparaño estaltzen
Duen belarrean ;
Cecena ta nausia
Daduzcatzi biac
Amorearen miñac
Galduric guztiac.

MENALCA.

Ecin esango det nic
Nere arcumeac
Daucatziela beintzat
Argal amoreac ;
Ezur uts eguiñica
Emandit gogoac
Ifiñi dizquidala
Niri beguizcoac.

DAMETAS.

Esan zadac ic non da
Munduan lecua
Sei cana bacarrica
Duena cerua ;
Au esaten badirac ,
Segurqui nic beintzat
Iduquico aut beti
Nere Jaungoicotzat.



MENALCA.

Esac , non dira arros
Eta azucenac
Erregueen izenac ,
Sortzez dituztenac ;
Eranzuten badirac
Duda gabetanic ,
Filida izango dec
Iretzat bacarric.

PALEMON.

Ez nezaque nic beintzat
Jaunac erabaqui ,
Ceñec copletan eguin
Dezuten obequi ;
Batac eta besteac
Dezute mereci
Bei gazte eder ura ,
Dedanez icusi.
Orobat merecidu
Beldur dan guztiac
Engañatu ez dezan
Amore eztiac ;
Eta ez guchiago
Amoreen miñac
Progatua daucanac
Dirala samiñac.
Ichi , ichi , mutillac ,
Ataquidac ichi ,
Soroac edan ditec
Gaur urican asqui.

Universidad de Deusto
Biblioteca

# S. IGNACIOREN MARCHA.

Inacio gure patroi andia
Jesusen compañia
Fundatu , eta dezu armatu ,
Ez da ez etsairic
Jarrico zaizunic ,
Iñolaz aurrean
Gaurco egunean ,
Naiz betor Lucifer deaurrua
Utciric infernua.
Zure soldaduac
Dira aingueruac ,
Zure guidaria
Da Jesus andia ,
Garaitu ditu zure compañiac
Etsaiac ;
Ez dauca fedeac ,
Ez cristau nereac ,
Ez dauca beldurric
Iñongo aldetic ,
Inacio ordago ,
Beti ernai dago ,
Armetan jarria
Dauca compañia ,
Chispac armaturic ,
Bandera zabalic ,

Universidad de Deusto Biblioteca



Gau , eta egun ,
Guc guztioc paquea degun ,
Beti gau eta egun.

Bildu dezu Inacio munduan ,
Arritceco moduan ,
Gendea
Fede biciz betea ,
Gende jaquintsua ,
Eta indartsua ,
Beti dabillena
Guerretan aurrena ,
Elizaren etsaiac billatcen ,
Topatu ta garaitcen;
Dituzu anaiac
Guerra eguin naiac ,
Da oien leguea
Etsai garaitcea ,
Oiec ditu bere defensoreac
Fedeac ;
Dirade ezagun ;
Dabiltza gautegun
Europan , Asian ,
Afric American ,
Idorrez itsasoz ,
Dijoaz , ta datoz ,
Dabiltza nequean ,



Indio tartean ,
Edo naiz cortean ,
Manera berean
Beti pelean
Bicitzac dirauen artean ,
Beti beti pelean.

Dira Inacio zure anaiac
Chit mariñel andiac ,
Arraunac
Bogatcen daquitenac ;
Pedroren ontcia
Badago ertsia
Arroca tartean
Egunen batean ,
Bertatic botean dira sartcen ,
Eta argana joaten :
Socaquin loturic
Arroquen artetic ,
Baldin badu etsairic
Oiec garaituric ,
An daramate ontcia cayera
Leorrera ;
Naiz izan ecaitza
Bogatceco gaitza ,
Eta baguen goiac
Naiz busti odoiac ;

Universidad de Deusto
Biblioteca



Arraunac arturic ,
Botean sarturic ,
Coragez beteric ,
Bicitzaz azturic,
Boa boa deiric ,
Dijoaz caietic ,
Bultceaz quilla ,
Pedroren ontciaren billa ,
Beti bultceaz quilla.

## EZPATA DANTZA. (1)

Gaur
Batista Biribill
Dantzen ongui abill ,
Ez dec ezpataric
Ire parecoric ;
Ire cabriolac
Ozt ozta chirolac
Oi dizquic seguitcen
Ta compasa artcen.
Arrastacacoac ,
Eta goracoac
Dituc alacoac ,
Non icustecoac ,
Aurrerontz atcerontz ,
Eta bazterrerontz',
Ez dec dantzariric
Y bezalacoric.
Soñu zar pijoa ,
Onenetacoa,
Jotcen dec chambolin
Aire onarequin ,
Onec badic emen
Orain guero ta len

(1) Baile Romano llamado *Pirrico*.

Universidad de Deusto
Biblioteca



Asco eguiteco
Ongui dantzatceco.
Aurrera corri,
Atcera corri,
Beti ezpata airean,
Ez zac onezquero
Ez orain ez guero
Iñor jarrico gañean.

# DICCIONARIO DE ALGUNAS VOCES DE ESTE LIBRO.

Abarasca, *panal.*
Abarrotsa, *ruido.*
Abiadura, *ventaja que se toma para saltar.*
Aceria, *zorro.*
Aci, *criar.*
Acia, *semilla.*
Aculloa, *aguijon.*
Adina, *edad.*
Aditu, *oir, entender.*
Agueri, *manifiesto.*
Aguertu, *aparecer poner de manifiesto.*
Aguindu, *mandar.*
Aguiña, *muela.*
Agurea, *viejo.*
Aicea, *viento.*
Aienatu, *desaparecer.*
Aisa, *facilmente.*
Aitortu, *confesar.*
Aitu, *acabarse.*
Aitza, *peña.*
Aitzaquia, *pretesto.*
Aitzurra, *azada.*
Aizcora, *hacha.*
Alá, *asi.*
Alaba, *hija.*
Alaia, *vigoroso, alegre.*
Alboa, *costado, lado.*
Algara, *carcajada.*
Alporcha, *alforja.*
Ambat, *tanto mas.*
Ametsa, *sueño.*
Amorraia, *trucha.*
Amorratu, *rabiar.*
Amua, *anzuelo.*
Anca, *pierna, pie.*
Andrea, *muger.*
Anitz, *mucho.*
Antzá, *semejanza.*
Aoa, *boca.*
Apaindu, *adornar, engalanar.*
Apostura, *apuesta.*
Aquerra, *cabron.*
Arabera, *segun*
Araguia, *carne.*
Araquiña, *carnicero.*
Arcacosoa, *pulga.*
Arcaitza, *peña.*
Arcumea, *cordero.*
Ardia, *oveja.*
Ardita, ardite, *ochavo.*
Argala, *flaco.*

Universidad de Deusto
Biblioteca



Arguia , *luz.*
Arguiña , *cantero.*
Ari , *ocuparse.*
Aria , *carnero.*
Ariña , *ligero , agil.*
Ariquia , *carne de carnero.*
Armiarma , *araña.*
Armonia , *murmullo.*
Arotza , *carpintero*
Arpeguia , *cara.*
Arquiarazo , *hacer , hallar.*
Arquitu , *hallar.*
Arra , *gusano macho.*
Arrata demoa , *raios y demonios*
Arraia , *pez.*
Arranoa , *aguila.*
Arrantza , *pesca.*
Arrantza , *rebuzno.*
Arrapatu , *coger.*
Arras , *totalmente.*
Arrastaca , *arrastrando.*
Arratoia , *raton.*
Arratsa , *noche.*
Arrazoia , *razon.*
Arrea , *rastrillo.*
Arren , *por dios sin embargo.*
Arreta , *cuidado.*
Arrigarria , *admirable.*
Arritu , *admirarse.*

Arroa , vano
Arrotasuna , *vanidad.*
Arrotu , *envanecerse.*
Artaldea , *rebaño de obejas.*
Artea , *encino.*
Arteguia , *redil.*
Artoa , *maiz.*
Artza , *oso.*
Artzanora , *mastin.*
Asá , *aliento.*
Asarrea , *reñido.*
Asarretu , *reñir.*
Asi , *comenzar.*
Asmatu , *adivinar.*
Asmoa , *propósito.*
Asnasa , *aliento.*
Asqui , *harto , bastante.*
Astacaicua , *majadero.*
Ataquida , *compuerta.*
Atcea , *parte trasera.*
Atceman , *coger.*
Atceratu , *atrasar.*
Atea , *puerta.*
Atera , *sacar.*
Atsecabea , *afliccion.*
Atseguin , *satisfaccion contentamiento.*
Atsoa , *vieja.*
Atzaparra , *zarpa, garra*
Auendatu , *deplorar.*
Aurguitea , *parto.*
Aurra , *niño*



Aurrecoac, *antepasados*
Aurrena , *primero.*
Aurrera , *adelante,*
Aurrera cherria , *cerdo para cebarlo ó engordarlo.*
Aurten , *este año.*
Ausarcia , *osadia.*
Ausarta , *osado.*
Ausartatu , *osar , atreverse.*
Autsi , *romper.*
Auzoa , *vecindad.*
Aztu , *olvidar.*
Azaldu , *aparecer.*
Azcarra , *activo , diligente.*
Azcazala , *uña.*
Azpia , *bajo.*
Azquena , *último.*
Azundua , *preñada, cargada.*
Babá , *haba.*
Bacarra , *solo.*
Bacarric , *solo solamente.*
Bada , *pues.*
Badoa , *vá.*
Bague , *sin.*
Balioa , *precio.*
Baratza , *huerta.*
Barcacioa , *perdon.*
Barecurculloa , *caracol.*

Barrena , *interior.*
Basoa , *bosque.*
Basatia , *salvage.*
Baserria , *caseria.*
Basurdea , *javali.*
Bat batetan / Batetan ) *derrepente*
Batez , *en un.*
Batez ere , *sobre todo.*
Batzarrea , *junta.*
Bazca , *pasto , comida.*
Bazcaldu , *comer á medio dia.*
Bazcatu , *pastar.*
Baztanga , *viruela.*
Bazterra , *lado , rincon.*
Bea , *bajo - balido de oveja.*
Bearbada , *quizá.*
Bear / Bearra ) *necesidad , menester.*
Bearsua / Bearsuna ) *necesitado , menesteroso*
Beatza , *dedo.*
Beazuna , *hiel,*
Beca , *balando.*
Becaizgoa , *envidia.*
Becin , *tanto como.*
Beguia , *ojo.*
Beguiratu , *mirar.*
Beguiroc , *mira,*
Beguizcoa , *fascinacion.*

Universidad de Deusto
Biblioteca



Beia, *vaca.*
Bein batean, *en una ocasion.*
Beindic bein, *á lo menos*
Beldurra, *miedo.*
Beldurtia, *tímido, medroso.*
Belea, *cuervo.*
Beltzurra, *corneja.*
Benazqui } *deveras*
Benaz } *deveras*
Benetan } *deveras*
Bentura, *ventura.*
Benturaz, *tal vez.*
Beñere, *nunca.*
Berá, *el mismo-abajo.*
Berandu, *tarde.*
Berdin, *no obstante.*
Berdiña, *igual, nivel.*
Berea, *suyo.*
Bereala, *luego.*
Bere buru ) *entre si.*
Beregan ) *entre si.*
Beroc, *ustedes.*
Berorri, *uste.*
Berritsua, *hablador.*
Bertatic, *desde luego.*
Besarca, *abrazo.*
Besabea, *arado de cinco dientes.*
Betoz, *vengan.*
Bezala ) *como*
Bezela ) *como*
Bialdu, *enviar.*
Biar, *mañana.*
Biaramona, *dia siguiente*
Biciro, *vivamente, mucho, muy.*
Bicitza, *vida, habitacion.*
Bidaldu, *enviar.*
Bide, *parece que.*
Bidea, *camino.*
Bide chidorra, *sendero.*
Biguña, *blando.*
Billa, *busca.*
Billatu, *buscar.*
Bildocha ) *cordero.*
Bildotsa ) *cordero.*
Bildu, *recoger.*
Bildura, *reunion.*
Bira, *revuelta.*
Biraua, *maldicion.*
Biribilla, *redondo.*
Biurtu, *volver convertirse.*
Bitartean, *entretanto.*
Bizarra, *pelo de barba.*
Bizcarra, *espalda.*
Bizquitartean, *entretanto.*
Bortitza, *fuerte.*
Borda, *caseria redil.*
Bostortza, *arado de cuatro dientes.*
Bota, *tirar.*



Bucatu, *acabar.*
Bularra, *pecho.*
Bultzatu, *empujar.*
Bultzaca, *á empujones*
Burruca, *altercado.*
Burrucatu, *altercar.*
Burruntcia, *asador.*
Buztana, *cola.*
Buztiña, *arcilla.*
Cabia, *nido.*
Cabitu, *caber.*
Cacaraza, *cacareo.*
Caicua, *zapito, colodra*
Calea, *calle.*
Caltea, *daño.*
Camustu, *embotar.*
Canabera, *caña.*
Canibeta, *cuchillo.*
Capaguiña, *marraguero*
Carraiatu, *conducir.*
Carrica, *calle.*
Catamotza, *tigre.*
Caia, *muelle en los puertos.*
Cein, *quien.*
Celaia, *llano-campo ancho.*
Centzua, *juicio.*
Cenzadarra, *geme.*
Ceren, *por que.*
Chacurra, *perro.*
Chala, *ternero.*
Chalma, *albarda.*
Chanchilla, *médida para vender leche.*
Chambolin, *tamborilero*
Changurrua, *cangrejo.*
Chaola, *choza.*
Chapela, *sombrero.*
Chará, *jaro.*
Charrá, *ruin.*
Checorra, *novillo.*
Cherpola, *serpol.*
Cherria, *cerdo.*
Chertatu, *ingerir.*
Chetu, *moler, pulverizar.*
Chibista, *lazada.*
Chicharra, *cigarra.*
Chimista, *rayo.*
Chimua, *mono.*
Chimurchia, *pellizco.*
Chingurria, *hormiga.*
Chiquia, *pequeño.*
Chiquiratzallea, *capador*
Chispa, *escopeta.*
Chistua, *silbo.*
Chit, *muy.*
Chito, *silencio.*
Chitoa, *polluelo.*
Choarrea, *gorrion.*
Chocoa, *rincon.*
Chopiña, *media azumbre.*
Choratu, *afatuarse.*
Choria, *pajaro.*

Universidad de Deusto Biblioteca



Choroa, *fatuo.*
Churra, *parco, económico.*
Chut, *derecho, en pie.*
Cillarra, *plata.*
Cimurra, *arrugado.*
Cimurtu, *arrugarse.*
Cincillic, *colgando.*
Cinguira, *laguna.*
Cintza, *asomo.*
Ciñez, *de veras.*
Ciquindu, *ensuciar.*
Ciquiña, *sucio.*
Circilla, *charlatan.*
Ciricoa, *seda.*
Cirritua, *rendija.*
Citala, *ruin.*
Citalqueria, *ruindad.*
Cocorica, *de cuclillas.*
Coipea, *manteca.*
Colca, *clueca.*
Contresta, *enemigo.*
Copeta *frente.*
Cordea, *sentido.*
Cotà, *percha de gallinas*
Cucha, *arca.*
Cucusoa, *pulga.*
Cupida, *compasion.*
Cupigarria, *digna de compasion.*
Cupitu, *compadecer.*
Cutsatu, *contagiar.*
Damua, *pesar.*

Deadarra, *grito.*
Deia, *llamada.*
Dendaria, *tendero, sastre.*
Desberdiña, *desigual.*
Deus, *algo.*
Distiatu, *brillar.*
Doa, *va*
Doacabea, *desgracia.*
Doi doia, *escasamente.*
Ebaqui, *cortar.*
Ebasi ) *robar*
Ebatci )
Ecaitza, *tempestad.*
Ecen ez, *que no.*
Ecer ) *algo*
Ecercho )
Echequi, *agarrar.*
Echola, *choza.*
Ederra, *hermoso.*
Ega, *vuelo.*
Egarria, *sed.*
Egoqui, *aproposito.*
Egun, *hoy.*
Egun sentia, *aurora*
Eguzquia, *sol.*
Eia, *pocilga.*
Elbarria, *manco.*
Elbarritu, *dejar manco.*
Elcartu, *unirse.*
Elorria *espino.*
Elizaracoia, *iglesiero.*
Eltcea, *olla.*



Emaitza, *regalo.*
Emea, *embra.*
Enada, *golondrina.*
Enzun, *oir.*
Epea, *plazo*
Epurdia, *trasero.*
Equin, *embestir al trabajo.*
Erabaqui, *decidir.*
Erabilli, *menear.*
Eracequi, *encender.*
Eracutsi, *enseñar*
Eraguin, *hacer hacer.*
Eraman, *llevar.*
Eramana, *sufrimiento.*
Eranzun, *responder.*
Eraso, *embestir.*
Erausia, *habladuria.*
Erdera, *lengua estrangera, castellana.*
Erdi, *parir.*
Ereztatu, *incomodar.*
Erguia, *novilla,*
Eria, *enfermo.*
Erioa, *muerte.*
Ernaia, *despierto.*
Eroa, *loco.*
Erori, *caer.*
Erpoa, *talon.*
Erramua, *laurel.*
Erran, *decir.*
Erratillua, *plato.*
Erratza, *escoba.*

Erraza, *facil.*
Erraztu, *facilitar.*
Erregua, *ruego.*
Errementaria, *herrero.*
Errepaña, *refran.*
Errezoa, *rezo.*
Erria, *villa.*
Errota, *molino.*
Erruz, *de gana.*
Ertsia, *apretado.*
Ertza, *esquina.*
Escalea, *pordiosero.*
Escañi ) *ofrecer.*
Esqueñi )
Escaria, *peticion.*
Eseri, *sentarse.*
Esnatu, *despertar.*
Estea, *intestino.*
Estropoa *tropiezo.*
Estutasuna, *aprieto.*
Etcin, *hecharse.*
Etorri, *venir.*
Etsaia, *enemigo.*
Etsi, *desengañarse.*
Etzarri, *poner, tender.*
Eulia, *mosca.*
Eultza, *colmena.*
Euria, *lluvia.*
Euscara, *bascuence.*
Eutsi, *agarrar.*
Ezarri, *poner.*
Ezcutucoa, *oculto.*
Eztarria, *garganta.*

Universidad de Deusto Biblioteca



Eztia, *miel, suave.*
Eztiqui
Eztiro ) *suavemente.*
Farra, *risa.*
Far-irria, *sonrisa.*
Faza, *magestad.*
Funsa, *fundamento.*
Gaua
Gaba ) *noche.*
Gabiroia, *gabilan.*
Gai, *capaz.*
Gaia, *material.*
Gaisoa
Gajoa ) *pobre, infeliz.*
Gaitzeztatu, *odiar.*
Gaitza, *mal-enfermedad.*
Gaizqui, *mal.*
Gaiztaqueria, *maldad.*
Gaiztoa, *malo.*
Galanta, *grande.*
Galdetu, *preguntar.*
Galdorra, *cresta.*
Galgarria, *arruinador.*
Gambara, *desvan.*
Gañera, *ademas.*
Gañeratu, *ponerse encima.*
Garaitu, *vencer.*
Garbia, *limpio.*
Garbitu, *limpiar.*
Garia, *trigo.*
Gari-alea, *grano de trigo*

Gari-celaia, *trigal.*
Gari-lastoa, *paja.*
Gazta, *queso.*
Gaztea, *joven.*
Gazteria, *juventud, conjunto de jóvenes.*
Gaur, *hoy.*
Gira, *vuelta.*
Gira, bira, *vuelta y revuelta.*
Giratu, *volver.*
Gogoa, *gana, recuerdo.*
Gogoratu, *ocurrir.*
Goiantea, *gigante.*
Goldea, *arado.*
Gona, *saya.*
Gordaidua, *provision; reserva.*
Gorotza, *fiemo.*
Gosea, *hambre.*
Gozoa, *dulce.*
Griña, *inclinacion.*
Gueiegui, *demasiado.*
Gueiena, *lo mas, la mayor parte.*
Gueizco, *demasiado.*
Guela, *cuarto, alcoba.*
Gueldi, *quieto,*
Gueldìtu, *quedar,*
Guertatu, *acontecer.*
Guicena, *gordo.*
Guicendu, *engordar.*
Guiltza, *llave.*



Guisa, *manera.*
Gura, *gana, ganoso.*
Guria, *mantequilla-blando.*
Gurrinca, *gruñido.*
Guticia, *deseo.*
Icara, *miedo.*
Icaracoia, *medroso.*
Icaratu, *amedrentar.*
Icengoitia, *apodo.*
Ichi, *cerrar.*
Ichoron, *aguardar.*
Icusi, *ver.*
Icutu, *tocar.*
Iduritu, *parecer.*
Ifiñi, *poner.*
Igandea, *domingo.*
Igaro, *pasar.*
Iguela, *rana.*
Iguitu, *moverse.*
Illarguia, *luna.*
Illea, *pelo.*
Inchaurra, *nuez.*
Inciria, *aullido.*
Indarra, *fuerza.*
Inguela, *rana.*
Inguma, *mariposa.*
Iñor
Iñorcho ) *ninguno.*
Iñoteria, *carnaval.*
Io, *subir.*
Ipuia, *fábula.*
Iracurri, *leer.*

Iretsi
Irichi ) *tragar.*
Irichi, *alcanzar.*
Iritcia, *parecer.*
Irriquitu, *anelar.*
Irristatu, *resbalar.*
Irten, *salir.*
Iscambilla, *bulla.*
Ispillua, *espejo.*
Isterra, *pierna de carnero.*
Istua, *saliva.*
Itaitu, *segar.*
Itsusia, *feo.*
Itza, *palabra.*
Itzala, *sombra.*
Itzontcia, *hablador.*
Izan, *ser, tener.*
Iztcuntza, *lenguage.*
Izpia, *piltrafa.*
Izugarria, *espantoso.*
Jachi, *bajar.*
Jaio, *nacer.*
Jaiqui, *levantarse.*
Jantci, *vestir.*
Jaquia, *manjar.*
Jardun, *ocuparse.*
Jario, *derramarse.*
Jaso, *levantar.*
Jatecoa, *pan.*
Jatorria, *decendencia.*
Jaureguia, *palacio.*
Jiratu, *volver.*

Universidad de Deusto Biblioteca



Jo , *sacudir.*
Joia , *galan.*
Jorratu , *escardar.*
Laborria , *temblor.*
Lambroa , *bruma.*
Laia , *instrumento aratorio.*
Lana , *trabajo* , *labor.*
Landa , *campo.*
Lapurra , *ladron.*
Lapurreta , *robo.*
Laratza , *llares.*
Larra , *zarza.*
Larrea , *pasto.*
Larritu , *sobresaltarse.*
Lasaia , *flojo.*
Laster , *pronto.*
Latza , *nerbudo* , *vigoroso.*
Laztana , *abrazo.*
Lecua , *lugar.*
Leioa , *ventana.*
Lembailen , *cuanto antes.*
Lepandea , *collar.*
Lepoa , *pescuezo.*
Lertu , *rebentarse.*
Limurtu , *inclinarse.*
Liraña , *torneado.*
Lirdia, *baba.*
Locarria , *cinta.*
Loia , *lodo.*
Lotia , *dormilon.*
Lotsa , *vergüenza.*
Lucainca , *longaniza.*
Lurriña , *vapor* , *vaho.*
Macurra , *arqueado.*
Macurtu , *agacharse.*
Madaria , *pera.*
Madaricatua , *maldito.*
Maia , *mesa.*
Maira , *artesa.*
Maitea , *querido.*
Maiz , *amenudo.*
Majadera , *pesebre.*
Maingutu , *cogear.*
Mamia, *carne sin hueso.*
Mantendu , *mantener.*
Maquilla , *palo.*
Marranga, *ronquera.*
Mardula , *mantecoso.*
Marmar , *murmullo.*
Marrubia , *fresa.*
Masalla , *carrillo.*
Mascorra , *concha.*
Masustarbola , *morera.*
Mea , *delgado.*
Mesedea , *merced.*
Mendea , *vasallage.*
Miaua , *maullido.*
Milliscatu , *lamer.*
Mintzatu , *hablar.*
Mistoa , *aguijon de aveja* , *vivora etc.*
Mocanesa *pañuelo.*
Moiztu , *cortar.*



Molorria , *acanto yerva.*
Moredina , *jacinto* , *flor.*
Morroia , *criado.*
Moscorra , *borracho.*
Mota , *clase* , *casta.*
Muchina , *enfadado.*
Munoa, *colina.*
Musquilla , *renuevo de arbol.*
Mutil / Muticoa ) *muchacho.*
Muturra , *hocico.*
Nabarbena , *goloso.*
Nausiá , *amo* , *dueño de casa.*
Nai , *querer.*
Naia , *voluntad* , *querer.*
Naicoa, *cuanto se quiere*
Narra , *tonto.*
Nastu , *mezclar.*
Necatu , *cansar* , *fatigar.*
Nequea , *fatiga.*
Nerequico , *para mi.*
Nescacha , *muchacha.*
Nescamea , *criada.*
Oa / Oaquit ) *vete.*
Oartu , *caer en cuenta.*
Odoia , *nube.*
Oea / Oia ) *cama.*
Oi , *soler.*
Oitu , *acostumbrar.*
Oitura , *costumbre.*
Ojua , *grito.*
Ola , *tabla - oficina* , *ferreria.*
Omen , *dicen.*
Ondoren , *despues de.*
Onen , *que.*
Onen ederra , *que hermoso.*
Oncia , *barco - vaso.*
Oña , *pie.*
Opa izan , *desear.*
Oquerra , *torcido* , *tuerto* , *entuerto.*
Ordea , *pero.*
Ordua , *hora.*
Oria , *amarillo.*
Oreña / Oriña ) *gamo.*
Oro , *todo - cada.*
Oroitu , *acordarse.*
Orria , *hoja.*
Orroa / Orrua ) *rugido.*
Ortelanoa , *jardinero.*
Osasuna , *salud.*
Ostoa , *hoja.*
Ostu , *robar.*
Otadia ,*argomal.*
Otarrea , *cesta.*
Ote , *por ventura.*
Otea , *argoma.*
Otoitza , *oracion.*

Universidad de Deusto Biblioteca



Pacia , *caldera.*
Padera , *sarten.*
Parea , *pareja , igual.*
Patua , *hado, suerte.*
Pecatua , *pecado.*
Perillá , *peligro.*
Pertza , *caldera.*
Pijoa , *guapo.*
Pisa , *orina.*
Pisca , *poco.*
Pis eguin , *mear.*
Piztia , *animal dañino.*
Pocho , *nombre que por cariño se da á varios animales.*
Poliqui / Poliquicho ) *poco á poco*
Polita , *pulido , bonito.*
Potza , *dejado , abandonado.*
Poza , *gozo.*
Pozoitu , *envenenar.*
Poztu , *alegrarse.*
Premia , *necesidad.*
Presa , *prisa.*
Prest , *pronto.*
Pusca , *pedazo.*
Puscatu , *hacer pedazos.*
Quemena , *vigor.*
Quendu , *quitar.*
Quezca , *inquietud.*
Quioa , *pepita.*
Quirtena , *mango.*
Sagua , *ratoncillo.*
Saietsa , *costado.*
Samurra , *tierno.*
Saquela , *bolsa.*
Sarea , *red.*
Saria , *pago.*
Sartu , *entrar.*
Saiatu , *ensayarse.*
Sasia , *zarza.*
Sasquia , *cesta.*
Seculan , *jamas.*
Segur , *seguro.*
Seia , *sirviente.*
Sendatu , *curar.*
Sendoa , *fuerte.*
Señua / Sinua ) *seña.*
Soña , *bestido.*
Soñua , *sonido , ruido.*
Sorta , *fajo.*
Sortu , *inventar.*
Sucaldea , *cocina.*
Sustraia , *raiz.*
Suteguia , *fragua.*
Taloa , *torta de maiz.*
Tantá , *gota.*
Tapatu , *cubrir.*
Tema , *apuesta.*
Tetuan, *tierra de monos*
Tiruztaia , *arco , aro.*
Titia , *ubre.*
Tontorra , *punta.*



Topo eguin , *topar encontrarse.*
Toquia , *parage.*
Tripazaia , *gloton.*
Ucatu , *negar.*
Ucullua , *caballeriza. cuadra.*
Udaberria , *primavera.*
Udazquena , *otoño.*
Ugaria , *abundante.*
Ugüitu , *hastiarse.*
Ujola , *riada , avenida.*
Umacia , *cerda que ha criado.*
Umea , *cria , hijo.*
Umedun , *cargada.*
Uquitu , *tocar.*
Urbildu , *acercarse.*
Urcatu , *ahorcar.*
Urdaia , *tocino.*
Urdaiazpia , *jamon.*
Urdalla , *estómago.*
Urguna , *cojo.*
Urricaria / Urriquigarria ) *digno de compas.ⁿ*
Urriquitu , *compadecer.*
Urrunga , *arrullo.*
Ustea / Usteizan ) *parecer , aguardar.*
Zacurra , *perro.*
Zaldia , *caballo.*
Zalduna , *caballero.*
Zalea , *aficionado.*
Zama , *carga.*
Zamatu , *cargar.*
Zanga , *latido.*
Zañac , *raices.*
Zarpazarra , *andrajoso.*
Zauria , *herida.*
Zoria , *suerte.*
Zorrotza , *agudo.*
Zuartza / Zuraritza ) *arbol brabo.*
Zucena , *derecho , recto.*
Zurrunga , *ronquido.*
Zut , *derecho , recto.*

FIN